

PIAU

EUSKADI

IRISGARRITASUN UNIBERTSALEKO PLAN INTEGRALAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDEETAN

Idazteko jarraibideak
eta orientazioa
I. edizioa – 2023ko ekaina

AURKIBIDEA

1. IRISGARRITASUN UNIBERTSALEKO PLAN INTEGRALEN (PIAU) OINARRIAK EUSKADIN	8
1.1 Euskadin irisgarritasuna lantzen jarraitzeko beharra	10
1.2 Irisgarritasun-planak Euskadin.....	11
2. FUNTSEZKO GAIAK	12
3. IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN PLAN INTEGRALA (PIAU) EGITEAREN GARRANTZIA...	15
4. PROPOSAMEN ESTRATEGIKOA	17
4.1 Ikuspegia eta Misioa	18
4.2 Printzipio estrategikoak.....	18
4.3 Zeharkako gaiak.....	19
4.4 Ardatzak, helburuak eta ekintzak	20
4.5 Jarduera-eremuak	22
4.6 Gobernantza	22
5. IRISGARRITASUN UNIBERTSALEKO PLAN INTEGRALA EZARTZEKO PROZESUA.....	23
6. AURRETIKO LANAK	26
6.1 Plana garatzeko batzordea ezartzea	26
6.2 Planaren irismena zehaztea.....	27
6.3 Kanpoko adituak kontratatzeke beharra baloratzea	30
6.4 Pleguak egitea eta lizitazioa argitaratzea.....	31
6.5 Plana egiteko proiektua aurkeztea eta zabaltzea	31
7. 1. FASEA. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA ETA DIAGNOSTIKOA.....	34
7.1 Erakundearen azterketa orokorra.....	35
7.2 Dokumentuen analisisa.....	36
7.3 Partaidetza-prozesuak.....	37
7.4 Landa-lana.....	39
7.5 Diagnostikoa	40
8. 2. FASEA. JARDUERA-PLANA	42
8.1 Jarduteko neurriak identifikatzea	42
8.2 Jarduteko neurriak lehenestea	43
8.3 Jarduteko neurrien aurrekontua eta egutegia.....	44
8.4 Ekintzen fitxak.....	45
8.5 Jarduera-planaren inplikazioak	46
9. 3. FASEA. KUDEAKETA-PLANA	47
9.1 Aginte-taula	47
9.2 Baliozkotzea	48

9.3	Azken dokumentuak prestatzea	49
9.4	PIAuren aurkezpena	49
10.	JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	50
I.	eranskina. ANALISIA ETA DIAGNOSTIKOA ARDATZ ESTRATEGIKOEN ARABERA.....	53
II.	eranskina. ANALISIA ETA DIAGNOSTIKOA JARDUERA-EREMUEN ARABERA.....	60
III.	eranskina. ARAU-EDUKIA	71
IV.	eranskina. DOKUMENTU-ITURRIAK.....	74
V.	eranskina. ESTADISTIKA-ITURRIAK.....	77
VI.	eranskina. PIAuren OINARRIZKO AURKIBIDEAREN PROPOSAMENA	78
VII.	eranskina. DEFINIZIOAK ETA TERMINOLOGIA.....	79
VIII.	eranskina. DOKUMENTU HAU SORTZEKO PROZESUA	82

IRUDIEN AURKIBIDEA


1. irudia	PIAUak Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren barruan.....	9
2. irudia	Funtsezko gaiak	12
3. irudia	PIAU idazteko garatu beharreko faseen eskema orokorra.....	16
4. irudia	Garatu beharreko faseen eskema orokorra: proposamen estrategikoa	17
5. irudia	Helburuak, ildoak eta ekintzak, proposamen estrategiko baten barruan	20
6. irudia	Irisgarritasun Unibertsaleko Ekintza Planaren ardatzak	21
7. irudia	PIAUren esparruan jarduteko eremuak.....	22
8. irudia	Garatu beharreko faseen eskema orokorra	25
9. irudia	Garatu beharreko faseen eskema orokorra: aurretiko lanak.....	26
10. irudia	Garapen-batzorde motak	27
11. irudia	Garatu beharreko faseen eskema orokorra. 1. fasea. Analisia eta diagnostikoa	34
12. irudia	Datuak biltzeko fitxaren adibidea	40
13. irudia	Analisi eta diagnostikorako AMIA eta CAME matrizeak.....	41
14. irudia	Hautemandako ahultasuna zuzentzeko adibidea	41
15. irudia	Garatu beharreko faseen eskema orokorra: 2. fasea. Jarduera-plana	42
16. irudia	Diagnostikorako fitxaren adibidea	43
17. irudia	Materialtasun-matrizea	44
18. irudia	Ekintza-fitxaren adibidea.....	45
19. irudia	Garatu beharreko faseen eskema orokorra. 3. fasea. Kudeaketa-plana.....	47
20. irudia	Planaren jarraipena egiteko aginte-taularen eskema	48
21. irudia	Garatu beharreko faseen eskema orokorra. Jarraipena eta ebaluazioa.....	50
22. irudia	Lau urterako planaren plangintzaren eta jarraipenaren adibidea.....	51
23. irudia	Irisgarritasun Unibertsaleko Ekintza Planaren ardatzak	53
24. irudia	PIAUren esparruan jarduteko eremuak.....	60
25. irudia	Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integralen Ponentziaren esparruan egindako saioak	82

PIAU

EUSKADI

IRISGARRITASUN UNIBERTSALEKO PLAN INTEGRALAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDEETAN

**Idazteko jarraibideak
eta orientazioa
I. edizioa – 2023ko ekaina**



DOKUMENTUAREN AURKEZPENA

Dokumentu hau irisgarritasun unibertsaleko estrategiak garatzeko laguntza eta erreferentzia gisa sortu da, batez ere Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei eta erakunde publikoei zuzenduta; hala ere, beste erakunde batzuentzat edo horien unitate sektorialentzat ere baliagarria izan daiteke.

Irisgarritasun unibertsaleko estrategia horiek Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integralen (PIAU) bidez ezartzen dira.

Dokumentuan zehar egitura intuitiboa erabili da, proiektuaren fase desberdinak identifikatzeko eta horiek PIAUren egituran bertan islatzeko.

Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integral bakoitza neurrira egokitu beharko da plan horiek sustatzen dituen erakundearen arabera, baina espero dugu dokumentu honek lanketa hori erraztea eta prozesuaren fase bakoitza modu argian bideratzea.

Irakurtzeko jarraibideak:

- Dokumentuaren egitura bat dator Irisgarritasun Unibertsaleko Udal Plan Integralaren egiturarekin; hala, Udala litzateke planteatzen diren eremu gehienetan jarduteko gaitasuna duen erakunde publikoa. Hala ere, egitura bera aplikatu dakiok beste edozein erakunde publiko edo pribaturi, nahiz eta bere osakeraren baitan egokitu beharko lukeen egitura hori.
- Dokumentuaren atal desberdinek plana bera garatzeko jarraitu beharreko irizpide kronologikoa mantentzen dute.
- Testuan zehar, aipatutako beste dokumentu batzuen testu osoak eskuratu ahal izango dira. Horiek azpimarratuta agertuko dira, eta, gainean klik eginez, dagokion testura jotzeko aukera emango dute.

Adibidea: [Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia](#)

- Testua idazteko erabilitako hainbat kontzeptu ulertzen laguntzeko, kontzeptu horiek Definizioei eta Terminologiari buruzko VII. eranskinean sartu dira, eta testuan zehar letra etzana erabiliz nabarmendu dira, dagokion kontzeptuaren amaieran izartxo bat gehituta.

Adibidea: *irisgarritasun fisikoa**

- Dokumentuan zehar mugitzeko barne-loturak gehitu dira, dokumentuaren beste zati batean zerikusia duen gairen bat jorratzen bada, horra mugitu ahal izateko. Horretarako, gezi baten ikurra txertatu da, eta estekan klik eginda, dokumentuaren beste zati horretara eramango gaitu.

Adibidea: [proposamen estrategikoa](#) →

1. IRISGARRITASUN UNIBERTSALEKO PLAN INTEGRALEN (PIAU) OINARRIAK EUSKADIN

Bizitza sozialean eta komunitarioan sartzea eta parte hartzea, bidezko den helburua ez ezik, pertsona orok edozein gizarte aurreratutan duen nahia ere bada. Hala ere, sarri askotan, eskubide horietaz baliatzea zaildu eta eragotzi ere egiten dute fisikoak zein komunikaziozkoak diren oztopoek, pertsonak era normalean moldatzen ez baitute uzten.

[Euskal Autonomia Erkidegoan Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean](#) jasotako sarrerako paragrafo horrek adierazten du, une horretan eta gaur egun ere, irisgarritasun unibertsala txertatu behar dela herritarren eskura dauden ingurune, produktu, ondasun eta zerbitzuetan.




Asmo horrekin, eta lege honen 20. urteurrena ospatzeko, [Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia](#) egin da, Euskadi erabat irisgarria lortzeko. Eta irisgarria diogunean ez gara ari hiri-espazioei, eraikin publikoei, lantokiei eta etxebizitzetarako buruz bakarrik; horiez gain, komunikazio digitalaren horizonte berriak irekitzen dituzten ingurune ez-fisikoak eta herritarren eskubide guztiak ere hartzen ditugu kontuan.

Testuak zehazten du beharrezkoa dela irisgarritasun-kontzeptu berria definitzea diskriminazio oro saihesteko, eta erakunde-politiken jarduketak eta ikuspegia identifikatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko irisgarritasun unibertsala egituratzeko ardatz gisa, irisgarritasun unibertsalaren arloan ibilbide-ori bat prestatzeko premiarekin bat etorritik, lau urteko programen bidez, aipatutako Legearen 13. artikuluan jasotakoaren arabera.

Estrategiaren testuan bildutako konpromisoak gauzatzeko ahalbidetzen du Estrategia garatzen duen [Ekintza Planak](#): ekintza multzoa da, pertsona guztiek ingurune, produktu, zerbitzu eta informazioetara irispidea izateko eta horiek erabiltzeko duten eskubidea modu aske eta autonomoan, gure gizartearen esparru guztietan.



PLANEN PLANA da, autonomia-erkidego osorako proposamen estrategikoa zehaztu ondoren, gizartearen eremu guztietan barneratzen joateko aukera emango duena. Horretarako, **4. ekintzaren** bidez, irisgarritasuna sustatzeko lau urteko programak idatzi eta eguneratu behar zirela aurreikusi zen, hau da, irisgarritasun unibertsaleko plan integralak egin behar zirela erakunde publiko zein pribatuetan, irisgarritasunaren kudeaketa oinarri duen gobernantza-ardatzari erantzuteko, eta, zehazki, honako ildo estrategikoari heltzeko (1.1 Egitura): "Lidergo instituzionala eta politikoa izatea eta irisgarritasun unibertsaleko Euskadiko strategiaren ekintza-planaren egitura arduraduna sortzea".



1. irudia PIAUak Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren barruan

Testuinguru horretan, eta Euskadiko hainbat erakunde publikorekin harremanetan jarriz ondoren, beharrezkotzat jo da irisgarritasun unibertsaleko lau urteko estrategia horien garapena eta inplementazioa bultzatzea erakunde publikoetan, toki-erakundeak zein organismo publikoak izan, eta baita erakunde pribatuen artean ere, guztiak EAEko Estrategiarekin bat etorritik.

Horrela, ISEK-Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren baitan, Estrategia ezartzeaz arduratzen den organoa den aldetik, lan-saio batzuk garatzeko planteamendua sortu zen, gai hori buruzko berariazko lan-saioa eginez, *Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integralei buruzko Ponentzia* izenekoa. Bertan, hainbat parte-hartzailek, hala nola elkarteek, erakunde publikoek, elkargo profesionalek eta adituek, irisgarritasun unibertsaleko plan integralei eta horiek garatzeko kontuan hartu behar diren elementuei buruz hausnartu ahal izan zuten. [VIII. eranskinean](#) →, egindako saioei eta horietan parte hartu duten eragileei buruzko informazio gehiago jasotzen da.

Dokumentu honen bidez, *oinarrizko eredu*a aurkezten da, baliagarria izango zaiena erakundeei planak egituratzeko eta horiek garatzeko orduan kontuan hartu behar dituzten puntuak ezagutzeko, bai eta plana ezartzeko eta horren jarraipena egiteko ere.

Dokumentu honen aurkezpenean aipatu den bezala, oinarri gisa hartu den irismena eta dokumentuan zehar behin eta berriz aipatzen dena udal-eremuarena da, ulertzen baita udal-erakundea dela horrelako planek izan behar duten irismenean identifikatutako eremu gehienetan jarduteko gaitasuna duen erakundea; hala ere, eskema beste edozein erakundetara eraman daiteke, publiko zein pribatutara, eta, horretarako, haren jardun-eremu zehatza mugatu beharko da.

1.1 Euskadin irisgarritasuna lantzen jarraitzeko beharra

Euskadiko Irisgarritasun Estrategia egitean landutako diagnostikoa oinarri hartuta, non elkarteek, udalek eta erakunde publikoek parte hartu zuten, Irisgarritasunaren Euskal Legea betetzeko bidean aurrera egin da, eta, oro har, Euskadiko Irisgarritasun Unibertsala eremu guztietan ezartzen joan dela hautematen da, baina alde nabarmenak daude eremu eta erakunde desberdinen artean.

Hala ere, irisgarritasuna ez da zeharkako gai gisa ulertzen. Praktikan, «aldian aldiko irisgarritasuna» lantzen da, eta ez da benetan «irisgarritasun unibertsala» aplikatzen. Kasu askotan, irisgarritasunaren kontzeptua *irisgarritasun fisiko** gisa hartzen da oraindik, eta ez ditu biltzen *ikusmen, entzumen edo kognitibo** arloak. Hori dela eta, gainerakoetan baino gehiago aurreratu da *irisgarritasun fisikoan**, eta batez ere urbanizatutako espazio publikoetan, azpiegituretan eta eraikuntzan egin da aurrera.

Beraz, badira 20 urte Legea onartu zela, baina oraindik asko dago egiteko. Izan ere, pertsona askok ezin dute produktu, ondasun, ingurune eta zerbitzu asko eskuratzeko oinarrizko eskubidea gauzatu.

Dena den, Euskadiko lurralde historikoek eta udalerriek irisgarritasun unibertsalaren arloan duten errealitatea duela berrogei urtekoa ez bezalakoa da; baina, lortutako aurrerapenak gorabehera, oraindik bide luzea dago egiteko, eta, horretarako, ahaleginean jarraitu behar da, hirugarren sektoreko erakundeen, Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien, toki-erakundeen, erakunde publiko eta pribatuen, unibertsitateen, lanbide-elkargoen, sindikatuen eta, oro har, gizarte zibilaren baterako lanarekin.

Kontua ez da, beraz, hutsetik abiatzea, ezta gutxiagorik ere; pragmatismoa eta eraginkortasuna aplikatzean datza, egin beharreko lana erraztuko duten tresna erabilgarriak emanez, eta ildo horrekin bat egiten du dokumentu honek.

Horrela, bada, irisgarritasun unibertsalaren arloan lehendik dauden planekin alderatuta, plan-eredu berri honekin lortu nahi diren aldaketa nagusiak honako hauek dira:

- EAEko Irisgarritasun Estrategiarekin bat etortzea.
- Euskadiko erakunde guztien inplikazioa, publikoak zein pribatuak izan.
- Irisgarritasunaren "unibertsaltasunaren" zeharkakotasun eta aplikazio handiagoa, arlo guztietan aurrerapenak eginez.
- Eragin handiagoa aurrerapen gutxien izan diren eremuetan (enplegua; jendearen eskura dauden ondasunak, produktuak eta zerbitzuak; administrazioekiko harremanak; teknologia berriak, etab.).
- Parte-hartze sistematikoa prozesu osoan zehar.
- Irisgarritasun unibertsalaren arloan profesional gehiago prestatzearen eta herritarren eta erakundeen kontzientziazio-maila orokorrak areagotzearen aldeko apustu irmoa.


Osagarri gisa, EAEn irisgarritasun unibertsalaren esparruan erabilgarri dagoen informazioan eragitea espero da, informazio-iturri eta datu homogeenagoak, eguneratuagoak eta bateratuagoak bultzatuz, gaur egungo sakabanaketaren aldean.

1.2 Irisgarritasun-planak Euskadin

[Irisgarritasunari buruzko Euskal Legea](#) indarrean egon den 20 urteetan, Euskadiko udalen % 90ak izan du noizbait irisgarritasun-plan bat, nahiz eta gehienak ez diren eguneratu.

Ildo horretan, [Euskadiko Irisgarritasun Estrategiaren](#) Ekintza Planaren ezarpenaren jarraipena egiteko burututako analisiaren eta diagnostikoaren emaitzen arabera, EAEko 251 udalerrietatik 228k egin dute noizbait Irisgarritasun Plan bat. Plan horietatik, 59 baino ez dira onartu 2018tik aurrera. Horrela, egiaztatu da udalerrri gehienek ez dutela irisgarritasun-planik indarrean; planak eguneratu gabe geratzen dira, eta ez da haien betetze-mailaren jarraipenik egiten.


Lurralde historikoa	Euskadiko udalak, GUZTIRA	Irisgarritasun plana duten udalak	
		Kopurua	%, guztizkoaren gainean
Araba	51	45	% 88,2
Bizkaia	113	102	% 90,3
Gipuzkoa	87	81	% 93,1
Euskadi, guztira	251	228	% 90,8



2. FUNTSEZKO GAIAK

Erakunde batek Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integrala egiten badu, erakunde horrek konpromiso irmoa hartzen du bere jarduera-eremuaren barruan "oztopoa" izan daitekeen edozein egoera saihesteko, identifikatzeko eta zuzentzeko, herritarrek ingurune eta zerbitzu horiek modu autonomoan erabiltzeko eta eskuratzeko aukera izan dezaten.

Epigrafe honen xedea irisgarritasun unibertsaleko plan integrala egiteko kontuan hartu behar diren funtsezko gai batzuk aurkeztea da, irudi honetan adierazten direnak:



2. irudia Funtsezko gaiak

1 Irisgarritasun unibertsalaren definizio gisa hartuta [Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren](#) 2022ko aldaketan jasotakoa, **irisgarritasun unibertsala** da:

"Inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek bete behar duten baldintza, baita objektuek, tresnek eta gailuek ere, **persona guztiek ulertzeko, eta erabiltzeko modukoak** izan daitezten, segurtasun- eta erosotasun-baldintzetan eta ahalik eta modu autonomoenean eta naturalenean. Irisgarritasun unibertsalaren barruan dago irisgarritasun kognitiboa*, pertsona guztiek erraz ulertzeko, komunikatzeko eta elkarri eragiteko aukera izan dezaten".

Irisgarritasun unibertsala arau orokor gisa eratzen da, herritarren oinarritzko eskubideak bermatu ahal izateko tresna gisa, hain zuzen.

2 Bigarrenik, eta aurreko puntuan aipatu den bezala, giza aniztasunean jarri behar da arreta. Ingurune, ondasun, produktu eta zerbitzu irisgarriak ez daude desgaitasuna duten pertsonentzat soilik pentsatuta edo diseinatuta, baizik eta **herritar guztiek** horiek eskuratu, erabili eta gozatzea errazten dute.

Horrela, funtsezkoa da irisgarritasun unibertsala desberdintasuna desagerrarazteko ekintza positibo bat delaren ideia indartzea, eta ez desgaitasuna duten pertsonentzako onura gisa soilik, baizik eta "persona guztientzako" izango dena. Beraz, horiek jorrazteko orduan, irisgarritasun unibertsalaren kontzeptua osatzen duten alderdiak aipatu behar dira, hala nola *irisgarritasun fisikoa**, *irisgarritasun sentzoriala** eta *irisgarritasun kognitiboa**. Halaber, beharrezkoa da pertsonen beren eskura jartzen diren ingurune edo ekimenekin elkarreraginean sortzen diren beste premia batzuei erantzutea ere.

3

Irisgarritasun unibertsala lortzeko, haren diseinuak eta ezarpenak **zeharkakoa eta integrala** izan behar du.

Zeharkakoa, herritarren eskura dauden ingurune, ondasun, produktu eta zerbitzu guztiei eragiten dielako, eta, beraz, eragile sozial eta instituzional guztiei.

Integrala, ingurune, produktu, ondasun eta zerbitzuen irisgarritasuna bermatzeko beharrezkoa delako **balio-kateko** elementu bakoitzean irizpide irisgarriak kontuan hartzea, bai horien plangintza eta diseinutik hasi eta haiek kudeatu, ezarri eta garatzeraino, beste esparru batzuekiko loturez gain.

4

Eta irisgarritasun unibertsalaren zeharkako aplikazio eraginkorra eta integrala lortzeko, beharrezkoa da eragile publiko, pribatu eta sozialen parte-hartze orekatua, **gobernantza** bermatuz eta sustatuz.

Horretarako, alde batetik, **gobernu-arlo, eskumen-esparru eta sail** guztien koordinazioa eta lankidetzak ezinbestekoak dira, udalerrien edo erakunde publikoen arabera.

Bestetik, **interes-taldeak eta herritar guztien** beharrak eta iritzia kontuan hartu behar dira.

Horretarako, beharrezkoa da **kontsulta- eta lan-organo egonkorak**, eta ez aldiari aldiakoak, sortzea elkarrizketa sustatzeko, bai eta **parte-hartze sozialerako** teknikak erabiltzea ere estrategiaren fase guztietan.

Interes-taldeak artean, eremu instituzionala, soziala eta ekonomikoa identifikatzen dira: administrazio publikoak (tokikoak, probintziakoak, autonomikoak eta estatukoak), enpresak, hezkuntza-erakundeak eta herritarrak, oro har, ordezkari-erakunde bidez, hala nola hirugarren sektore sozialeko kideak.

5

Ohikoa da herritarren eskura dauden ingurune, ondasun, produktu eta zerbitzu jakin batzuen kudeaketa eta ustiapena **eskumen anitzekoa** izatea, eta erakunde publiko desberdinak inplikatzeko, bakoitzaren lurralde-eremuen arabera.

Kasu horietan, ezinbestekoa da **maila anitzeko gobernantza** deiturikoan lan egitea, administrazio publikoko maila desberdinen arteko elkarrizketarako eta komunikaziorako espazioak eta lantaldeak sortuz, eta, horrela, **erakundeak arteko koordinazioa eta lankidetzak** eta estrategian inplikaturako erakunde publikoen arteko gobernu ona erraztuz.

6 Irisgarritasun unibertsaleko plan integralaren proiektua babesten duten **aurrekontu-partidak** esleitzea ere gai garrantzitsua da, bertan jasotako ekintzak eraginkortasunez ezartzea ahalbidetuko baitu. Aurrekontu hori ezarritako lehentasunen eta helburuen arabera esleituko zaie jarduera-ildo eta ekintzei, kontuan hartuta, halaber, denbora-horizontea lau urtekoa dela.

7 Azken gako gisa, **estrategia orok jarraipen- eta ebaluazio-plana** izan behar du, adostutako helburuak eta neurriak betetzen direla ziurtatzeko, edo balizko desbideratzeen arrazoiak ezagutzeko eta behar bezala erantzuteko.

Gaur egun, aldaketak azkar gertatzen direnez, estrategiak **malguak** izan behar dira, ahal den neurrian, horiek ezartzean sortzen diren mehatxu eta aukera berrietara egokitzeko.

Erakundeen kasuan, komenigarria da garatutako irisgarritasun-planak agintaldiko edo legegintzaldiko lehen urtean idaztea, duten lau urteko izaeragatik, eta lehen urte hori ez gainditzea. Horrela, plana hurrengo ekitaldietan ezarriko dela bermatuko da, eta, aldi berean, agintaldi horiek amaitzen direnean aurrera egiten jarraitzeko lan-ildoak zehaztuta egongo da.

Horrez gain, eta aurrerago dokumentu honetan jasotzen den bezala, funtsezkoa izango da planean proposatutako ekintzak plana sustatzen duen erakundean erabilgarri dauden baliabide ekonomikoetara egokitzea, eta ekintza bakoitzak argi eta garbi definitutako aurrekontua izan beharko du, gauzatzeko bideragarria dena.

3. IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN PLAN INTEGRALA (PIAU) EGITEAREN GARRANTZIA

Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integrala honela defini daiteke:

*Epe luzera begira diseinatutako eta adostutako estrategia, hori sustatzen duen erakundearen eskumeneko esparruetan **irisgarritasuna** pixkanaka hobetzeko, **pertsona guztientzako** ingurune, produktu, ondasun eta zerbitzuen erabilera eroso, seguru eta autonomoa ziurtatuz, haien egoera pertsonala edozein dela ere eta berdintasun-baldintzetan.*

Egungo araudi- eta estrategia-testuinguruan, herri-administrazioek lidergoan jardun behar dute, gizartean irisgarritasun unibertsalaren aurrerapena ahalbidetzeko eta errazteko, eta, horrela, herritar guztiek eskubide berberak izango dituztela bermatzeko.

Horretarako, funtsezkoa da irisgarritasun unibertsala zeharkako gai gisa aitortzea, eta ez bakarrik desgaitasuna duten pertsonena. Hala, edozein ingurune, ondasun, produktu eta zerbitzuren plangintza-, diseinu- eta inplementazio-faseetan kontuan hartu behar den ezaugarria da, gizarte osoaren onurarako.

Estrategia integralak lantzea ezinbesteko tresna da erakunde ororentzat, irisgarritasun unibertsalaren aurrerapen ordenatua, adostua eta eraginkorra bermatzeko. Horretarako, komeni da zenbait gogoeta egitea, prozesu horiei ekiterakoan kontuan hartu behar direnak, duten garrantziagatik.

Dokumentu honetan proposatutako faseek, etapek eta tresnek prozesua egituratu eta antolatu nahi dute. Prozesu hori, nahiz eta antzekoa izan, desberdina izango da garatzen duen erakundearen eta bere ezaugarrien arabera (adibidez, entitate mota, tamaina, eskumenak, jarduera-eremua, etab.), bai eta bere baliabideen eta beharren arabera ere.

Ingurune eta zerbitzu irisgarriak lortzea epe luzerako konpromisoa da, eta berrikusi, berritu eta eguneratu egin beharko da. Gai hori denbora-epe zabaletan ordenatzeko, elkarren artean lotuta dauden prozesu estrategikoak modu sistematikoan egin behar dira, eta inoiz ez unean uneko eta loturarik gabeko ekintzak garatuz eta jarraipen-lan sistematizaturik gabe.


Irisgarritasun unibertsalak ikuspegi globala eta denboran iraunkorra izatea eskatzen du, baita neurrien aplikazioan oreka izatea ere.

Prozesu estrategiko horiei ekitea, gainera, funtsezkoa izango da erakundea zein egoeratan dagoen eta irisgarritasun unibertsalaren arloan aurrera egiteko abiapuntua zein den jakiteko. Era berean, datu objektiboen bidez, denbora-lerro batean egindako aurrerapena identifikatzen lagunduko du: *non gaude? Nondik abiatuko gara? Zenbat aurreratu dugu azken azterketatik?* Horiek dira analisi eta diagnostiko sakon batek erantzungo dituen galdera batzuk.

Horrez gain, plangintza eta estrategia horiek "sartu" egiten dira baliabide ekonomiko publikoak eskatzeko eta eskuratzeko orduan; horixe da, hain zuzen, berreskurapenerako Europako azken funtsen adibidea. Epe ertain eta luzerako estrategia izateak ekintzen bideragarritasuna indartzen du, eta, beraz, baliabideen erabilera eraginkorra.


Azkenik, partaidetza-teknikak sartzeak strategiaren eta haren ekintzen gobernantza eta iraunkortasuna bultzatzen ditu, nazioarteko eta estatuko politiketan jasotako gaiak diren aldetik, zeinak horiek lortzeko irizpideak sustatzen baitituzte, eta, batzuetan, baita eskatzen ere.

Dokumentu honetan PIAU baten lanketa planteatzen da, honako eskema honi jarraituz:



3. irudia PIAU idazteko garatu beharreko faseen eskema orokorra

4. PROPOSAMEN ESTRATEGIKOA



4. irudia Garatu beharreko faseen eskema orokorra: proposamen estrategikoa

Erakunde jakin batek, Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integrala egiteko konpromisoa bere gain hartuz, jarduten duen eremuak hobetzeko borondatea gauzatzen du, herritarrenganako diskriminaziorik eza bermatuz eta ingurumen-oztoporik edo elkarrekintza-oztoporik sor ez dadin, hautemandako arazoak ikertuz, konponbiderik egokienak emanez eta praktikan jarritz, lehentasun eta plangintza zehatz baten arabera.

Plangintza horri esker, lortutako lorpenak ezagutu ahal izango dira, eta, horrela, une bakoitzean hartutako estrategia doitu ahal izango da.

Hala ere, **erakunde bakoitzaren proposamen estrategikoa definitzeko garaian, garrantzitsua da Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia** abiapuntu gisa hartzea, eta, horrela, erakundeek garatutako ekintzak estrategia horrekin lerrotatuko dira, EAEn ezarritako mugari orokorrak kontuan hartuz, eta ekintza horien lorpenera bideratuz. Era berean, irisgarritasunaren arloko informazioa bateratu ahal izango da, eta, horrela:

- Informazioa sakabanatuta eta desegituratuta egotea saihestuko da, iturriak homogeneousatuz.
- Diagnostikoak egitea erraztuko da.
- Erakunde publiko eta pribatuen inplikazioa eta konpromisoa agerian jarriko da.
- Eragileen lankidetzan eta koordinazioan aurrera egingo da.
- Sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintza bateratuak bultzatuko dira.
- Erakundeen arteko koordinazioa sustatuko da.

HELBURU OROKORRA

(IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN EUSKADIKO ESTRATEGIA)

Pertsona guztiek sarbide edo erabilera publikoko ingurune fisikoak, produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko eskubidea egikaritu ahal izatea, modu aske eta ahalik eta autonomoenean, eta gure gizarteko esparru guztietara modu zeharkakoan iritsiz, diziplina eta sektore ugariatik.

4.1 Ikuspegia eta Misioa

Ikuspegiak eta Misioak etorkizuneko egoera laburbiltzen dute, hau da, espero den eraldaketa zein den eta hori lortzeko zer egin behar den.

Ikuspegia etorkizuneko egoerarekin identifikatzen da, nora iritsi nahi den, zer lortu nahi den.

IKUSPEGIA

(IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN EUSKADIKO ESTRATEGIA)

Gizartearen esparru batzuetan eta besteetan jarduketan eta politiken zeharkakotasuna ahalbidetzea, eta horiek guztiak eraginkor bihurtzea lortu nahi den helburu erkidea betetzeko: Euskadi irigarri bilakatzea pertsona guztientzat.

Misioa da ikuspegia lortzeko bete behar den zeregina.

MISIOA

(IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN EUSKADIKO ESTRATEGIA)

Irigarritasuna esparru guztietan oinarritzko eta zeharkako elementu gisa txertatzeko beharrezkoak diren mekanismoak eta erremintak gaitzea, pertsona guztien bizimodu independentea eta aukera-berdintasuna bermatzeko.

4.2 Printzipio estrategikoak

Printzipioak Plana inspiratzen duten **ideiak, balioak edo funtsezko arrazoiak** dira, eta Plana diseinatzeko eta idazteko oinarri gisa balio dute. Estrategikoak dira, Planean jasotako helburuak betetzen diren neurrian beteko direlako, Ikuspegiari lotuta, etorkizunean erakundearentzat lortu nahi dena, hain zuzen.

PRINTZIOPIO INSPIRATZAILEAK

(IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN EUSKADIKO ESTRATEGIA)

Araudiaren esparruarekin eta Estatuko eta nazioarteko irisgarritasun-plan eta -estrategiekin lerrokatuta



Aukera-berdintasuna
Bizimodu independentea
Pertsona guztientzako diseinua
Zeharkakotasuna
Eragile guztien inplikazioa
Gizarteratzea
Elkarrizketa zibila

4.3 Zeharkako gaiak

Garrantzitsua da, gainera, PIAUren proposamen estrategikoaren printzipioek erakunde bakoitzean indarrean dauden beste plan estrategiko batzuetan ezarritako erakundearen berezko printzipioak inspiratzea eta horietan oinarritzea.

Zeharkako gaiak dira planaren formulazioan etengabe aipatu beharrik gabe, proposatutako eremu guztietan kontuan hartu behar diren elementuak, plana gauzaten edo hobetzen lagun dezan.


Horregatik, komeni da gai horiek garatuko dituen epigrafe espezifikoak sartzea, haien oinarriak (adibidez, zergatik sartzen diren) eta planarekiko duten garrantziaren zergatia (adibidez, indarrean dagoen estrategia baten parte izatea) adierazita.

Zeharkako gai horiek udalerrian edo organismoan lehendik dauden estrategietatik erator daitezke (adibidez, Smart garapena, berrikuntza, landatartasuna), edo gai soziodemografikoei erantzun diezaiekete (adibidez, populazio-segmentuak, adinekoak edo gazteak, eten digitala, intersektionalitatea eta berdintasuna, etab.).

4.4 Ardatzak, helburuak eta ekintzak

Plangintzaren funtsezko elementuak dira. Aurrez adierazitako Misiolari erantzuten diote, eta horiek lortzeak proposatutako etorkizuneko ikuspegia lortzea ekarriko du.

- Ardatzak: planaren oinarri diren jardun-eremu nagusiak dira.
- Helburuak: identifikatutako ardatz bakoitzean lortu nahi den erronka bakoitzari erantzuten diote.
- Ekintzak: helburu jakin bat lortzera bideratutako ekintzak. Ekintza oro adierazle kuantitatiboen bidez neurtu ahal izango da.




5. irudia Helburuak, ildoak eta ekintzak, proposamen estrategiko baten barruan

Ardatzek, helburuek eta ekintzek helburu jakin batzuk zehaztea ekar dezakete, erakundearen **barruan zein kanpoan**:

- **Barnekoak**: erakunde publikoaren barne-kudeaketa hobetzera bideratutakoak. Erakundearen barruan ezarriko diren ekintzak dira (adibidez, konpromisoa, prestakuntza, arauak eta prozedurak, etab.).
- **Kanpokoak**: erakunde publikotik kanpora zuzendutakoak, hau da, intereseko eragileei, beste administrazio publiko batzuei, herritarrei eta abarri zuzendutakoak (adibidez, maila anitzeko gobernantza, arau-esparrua).

Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen PIAUen koordinazioari begira, identifikatu eta garatu beharreko ekintzak sei ardatzen inguruan egituratuko dira, eta ardatz horiek, aldi berean, [Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategian](#) egituratutako sei helburuei erantzuten die.



6. irudia Irisgarritasun Unibertsaleko Ekintza Planaren ardatzak



BEHARREZKO EGITURA

Zer egitura behar den azken helburuak lortzeko behar diren aldaketak egiteko. Zer kudeaketa egon behar den, zer lidergo, zer funtzio, ekintzen zer jarraipen eta nola indartu behar den esparru juridikoa.

1. ARDATZA	GOBERNANTZA: IRISGARRITASUNAREN KUDEAKETA	
ILDOA	E1.1	Lidergo instituzionala eta politikoa izatea eta egitura arduraduna sortzea
ILDOA	E1.2	Irisgarritasunari buruzko informazioa eta ezagutza sortzea eta partekatzea
2. ARDATZA	ESKUBIDEAK BERMATZEKO ESPARRU JURIDIKOA	
ILDOA	E2.1	Araudia berrikustea, kontzeptuak argitzeko eta jarduteko irizpide uniformeak ezartzeko
ILDOA	E2.2	Araudia behar bezala interpretatzen eta aplikatzen lagunduko duten tresnak eta mekanismoak sortzea
ILDOA	E2.3	Irisgarritasun-araudia betetzeko figurak eta eskumenak sortzea



BEHARREZKO ALDAKETAK

Zer aldaketa egin behar diren pertsonengan, erakunde publiko eta pribatuetan, jarreretan, balioetan, ikuspegiari, gaikuntzan, ingurune irisgarria eraikitzeke eta azken helburuetara iristeko.

3. ARDATZA	ERANTZUNKIDETASUNA ETA PARTAIDETZA	
ILDOA	A1.1	Gizarte osoarekin irisgarritasunaren balioak partekatzea
ILDOA	A1.2	Erakundeak erantzukide egitea irisgarritasun unibertsalaren balioetan
ILDOA	A1.3	Kontsulta publikoko eta partaidetzako ekimenak bultzatzea
4. ARDATZA	IRISGARRITASUNEAN TREBATZEA	
ILDOA	A2.1	Hezkuntza-zikloetan irisgarritasunean trebatzea
ILDOA	A2.2	Irisgarritasun unibertsalean profesionalak gaitzea
ILDOA	A2.3	Irisgarritasun unibertsalaren arloan pertsonak duten ezagutza eta esperientzia formalki aitortzea



IRISGARRITASUNA SUSTATZEA

Izaera dinamikoa duten ekintzak inplementatu behar dira, jarraitzeko asmoa dutenak, eredu berri bat, harremanak izateko modu berri bat bultzatuko dutenak, eremu guztietan irisgarritasuna bermatuko dutenak, irtenbide zehatzen bidez, erronka berrietara egokitu daitezkeenak eta berrikuntza teknologiko eta sozialaren laguntzarekin.

5. ARDATZA		IRISGARRITASUNA SUSTATZEA
ILDOA	S1.1	Administrazioen eta herritarren arteko harreman-eredu irisgarria sustatzea
ILDOA	S1.2	Planaren eremu guztietan irisgarritasuna bermatzea
ILDOA	S1.3	Irisgarritasuna sustatzeko ekintzak finantzatzea
ILDOA	S1.4	Parte-hartze politikoa bermatzea
6. ARDATZA		BERRIKUNTZAREN BIDEZKO IRTENBIDEAK
ILDOA	S2.1	Gizarte- eta enpresa-sare sendo bat sortzen laguntzea, irisgarritasunerako irtenbide teknologikoak emango dituenak
ILDOA	S2.2	Gizarte-berrikuntzaren bidez laguntza- eta arreta-ereduak bultzatzea
ILDOA	S2.3	Formula alternatiboen bidez gatazkak prebenitzea eta konpontzea

4.5 Jarduera-eremuak

Irisgarritasunaren ikuspegi integrala dela eta, planean sartu beharreko jarduera-eremuak aipatzen direnean, hurrengo irudian agertzen direnak identifika ditzakegu, PIAUren erakunde sustatzailearen errealitateari erantzunez identifika daitezkeen beste batzuk alde batera utzi gabe.



7. irudia PIAUren esparruan jarduteko eremuak

4.6 Gobernantza

Egiten den irisgarritasun-plan integrala, bere eskumen-eremuan eta jarduketan isismenean, plana garatzen eta gidatzen duen erakunde edo organismoari dagokio. Horrela, udalerri baten kasuan, tokiko eskumen-eremua izango da, eta probintzia- edo autonomia-erakunde baten eremua, berriz, haren izaera berekoa.

Gobernantzak izaera estrategikoa hartzen du irisgarritasun-plan integrala garatzean, eta zuzenean lotuta dago haren jarraipenarekin eta ebaluazioarekin; izan ere, ekintza bakoitzak arduradun zuzena izango du, behar bezala gauzatzeko, eta horrek berekin ekar dezake eragile pribatuekin, sozialekin eta abarrekin parte hartzea eta hitz egitea.

Gainera, gobernantza plana baliozkotzearekin ere lotuta dago, eta horrek, neurri handi batean, lagundu egiten du garapen-faseetan interes-talde guztiei informazioa ezagutarazten eta zabaltzen. Horrela, errazagoa izango da modu kooperatiboan landu den plana baliozkotzea (eta ezartzea), intereseko eragileek ezagutzen ez duten plan baten aldean.

Dokumentu honetako [2. epigrafean](#) → aurkeztutako funtsezko gaien artean, **gobernantza** eta **maila anitzeko gobernantza** jasotzen dira, bakoitzari buruzko informazio eta xehetasun interesgarriak emanez.

5. IRISGARRITASUN UNIBERTSALEKO PLAN INTEGRALA EZARTZEKO PROZESUA

Erakunde baten Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integrala idazteko, ordena jakin bati jarraitu behar zaio, irismena eta lortu beharreko helburuak argi eduki behar dira, eta plana idatziko duen talde teknikoa zehaztu behar da.

Dokumentu honetan Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integrala (PIAU) idazteko planteatzen den lan-prozesua azaltzen da, hainbat ataletan banatuta. Atal horietako bakoitzaren emaitza hurrengoaren abiapuntua da:

- Aurretiko lanak
- 1. fasea. Abiapuntuko egoeraren analisia eta diagnostikoa
- 2. fasea. Jarraipen-plana
- 3. fasea. Kudeaketa-plana
- Jarraipena eta ebaluazioa

[Aurretiko lanak](#) → garrantzi handikoak dira, izan ere, Planaren irismena, helburuak, egitura eta plana idazteko modua ezartzea ahalbidetzen dute; nolabait, aurretiko lanak PIAUren egituraren beraren "zimenduak" dira.

1. fasea, Planaren abiapuntua ahalik eta zehaztasun eta zorrotasun handienarekin ezagutzean datza, hura sustatzen duen erakundearen [azterketa osoa](#) → eta ahalik eta objektiboena eginez irisgarritasun unibertsalaren arloko egungo egoerari buruz. Oso garrantzitsua da datuak hartzeari eta dagokion landa-lanari lotutako guztia; horretarako, teknika eta tresna batzuk aplikatu behar dira, emaitza osoak, homogeneoak eta zehatzak lortu ahal izateko. Hori dela eta, ezinbestekoa da hura idazteaz arduratuko den taldea behar bezala prestatuta egotea gai horretan.

1. fasearen emaitza [abiapuntuko egoeraren diagnostikoa](#) → izango da. Diagnostiko horrek ahalik eta argazki zehatzena emango digu aztertutako eremu bakoitzean irisgarritasun unibertsalaren arloan erakundea edo udalerria nola dagoen jakiteko, eta irisgarritasunaren erradiografia batean indarguneak eta ahulguneak identifikatu ahal izango dira.

Diagnostiko hori 2. fasearen abiapuntua izango da; hau da, [jarduera-plana](#) → zehaztuko da, eta Planaren eremuetako bakoitzean abian jarri beharreko neurriak identifikatuko dira. Irtenbide tekniko posibleak alderatu beharko dira, Planaren xede den erakundearen edo udalerriaren berezko ezaugarrien arabera egokienak direnak hautatuz. Topografia, klima, udalerriaren izaera eta biztanleria dira jarduera-proposamenak egiteko kontuan hartu beharreko faktoreetako batzuk. Bestalde, identifikatutak neurrien eta dagozkien eremuen arteko oreka bilatu beharko da, ikuspegi orokor batetik.


Ekintzak identifikatu ondoren, horiek antolatzeke eta lehenetsun-hurrenkera esleitzeko unea izango da, eta PIAUren lau urteko indarraldian zehar garatu beharreko ekintza horien egutegia egingo da. Jarduera-plan horrek egin beharreko lana esparruka antolatuta eta denboran banatutako multzo batean islatzen du, ezarritako lehenetsunen arabera.

3. fasean, PIAU zuzenduko duen [kudeaketa-plana](#) → definitzen da. Horren bidez, PIAUren aginte-eta diseinatzen da, haren ezarpen ordenatua eta ondorengo jarraipena egin ahal izateko.

Horren ondoren, lanaren azken zatira iritsiko ginateke; berez, ez da fase bat izango, baizik eta planaren [jarraipena eta ebaluazioa](#) → nola egin aztertuko da, betiere kontuan hartuta horrelako plan batek malgua izan behar duela, egoera aldakorretara egokitu ahal izateko.


Prozesu horren guztiaren funtsezko zatia fase bakoitza aberastuko duten ekimen parte-hartzaileak sartzea da, ez bakarrik planaren idazketa-prozesuan, baita ebaluazio- eta jarraipen-prozesuan ere.

Hurrengo koadroan, proposatutako prozesu osoa laburbiltzen da, eta fase horietako bakoitza xehetasun handiagoz azalduko da hurrengo epigrafeetan.



8. irudia Garatu beharreko faseen eskema orokorra

6. AURRETIKO LANAK



9. irudia Garatu beharreko faseen eskema orokorra: aurretiko lanak

Plana prestatzen hasi aurretik, beharrezkoa da plana garatzen, baliozkotzen eta haren jarraipena egiten lagunduko duten zenbait ekintza kontuan hartzea. Plana egiteko testuinguru ahalik eta ondoen prestatzea da helburua.

Abiapuntu gisa, aurretiko bost zeregin posible identifikatu dira:

1. Plana garatzeko batzordea ezartzea
2. Planaren irismena zehaztea
3. Kanpoko adituak kontratatze beharra baloratzea
4. Pleguak egitea eta lizitazioa argitaratzea
5. Plana egiteko proiektua aurkeztea eta zabaltzea

6.1 Plana garatzeko batzordea ezartzea

Hasierako abiapuntu gisa, prozesu osoa koordinatuko duten eragileak identifikatu behar dira. **Plana garatzeko batzordea** deituko zaio horri.


Kontuan izan behar da horrelako plan batek hainbat eragile inplikatzeko eskatuko duela, erakundearen barrukoak zein kanpokoak, bai eta erakunde bereko beste esparru batzuekin koordinatzea ere.

Garapen-batzordearen helburua da irisgarritasun unibertsala zeharka eta modu orekatuan tratatuko dela bermatzea, planaren esparruan eta, beraz, haren eremuak eta alderdiak kontuan hartuta, eta planteatutako jardueren diseinuan ere.

Gainera, batzordeak lan garrantzitsua egingo du plana erakundearen gobernu-erllo/sail/esparru guztien artean zabaltzeko, bai maila teknikoan, bai politikoan, haien arteko beharrezko **lankidetzak**, **koordinazioa** eta **baterako lana** bultzatuz, eta, horrela, erantzukizuna eremu bakar bati ematea saihestuz, tradizionalki ingurune fisikorako edo gizarte-zerbitzuetarako irisgarritasunarekin lotuta egon dena.

Horregatik, gomendagarria da erakunde publiko orok irisgarritasun unibertsalaren arloko figura espezifikoa izatea, hura koordinatzeaz eta zeharka aplikatzeaz arduratuko dena. Bere eginkizunen artean, besteak beste, plana garatzeko batzordea koordinatzea eta plana oro har koordinatzea daude.

Plana garatzeko batzordea barnekoa edo mistoa izan daiteke. Barnekoa izango da erakundeko bertako langile publikoek osatzen dutenean (profil teknikoak eta politikoak barne). Gainera, kanpoko adituen parte-hartzea beharrezkoa bada, batzordea mistoa izango da.



10. irudia Garapen-batzorde motak

Bi aukera horiek ere baliozkoak dira, baldin eta, batzorde mistoen kasuan, tokiko administrazio publikoaren edo erakunde publikoaren parte-hartze jarraitua eta egonkorra bermatzen bada, planaren prozesu osoan arlo eta sail guztiak inplikatur, lehen adierazi den bezala.

Gainera, garapen-batzordeak kontuan hartu beharko luke interes-talde nagusien parte-hartzea (adibidez, adineko pertsonen elkarteak, auzo-elkarteak, desgaitasuna duten pertsonen elkarteak, enpresa-elkarteak, gremioak, etab.), bai modu iraunkorrean, bai aldian-aldian, bileren, informazio-jardunaldien, informazio-batzordeen eta abarren bidez. Egoera bat edo bestea erakunde bakoitzak lortu duen partaidetza- eta gobernantza-mailaren eta horretarako garatutako egituraren arabera izango da (giza baliabideak, baliabide teknikoak, materialak, prozedurak, antolaketa-kultura, eta abar).

Hala, irisgarritasun-plana bizia izango da, tartean dauden administrazioen eta gizarte-eragile guztien parte-hartze aktiboa badu.

6.2 Planaren irismena zehaztea

Irisgarritasun unibertsala zeharkako kontua denez, eta ez arlo jakin batekoa bakarrik, eta irisgarritasun-plana garatzeko denbora-epaia mugatua denez, zehazki, lau urterako ezarri da, irisgarritasuna sustatzeko [abenduaren 4ko 20/1997 Legearen](#) irizpideari jarraiki, irisgarritasun-plan horren irismena zehaztea funtsezkoa da. Gainera, aurretiko lan horietan definitu beharko da irismen hori, horrek zehaztuko baitu baliabide tekniko eta materialen esleipena.

Planaren irismena zehazteak esan nahi du irisgarritasun-planak zer eremu, alderdi edo elementu zehatzetan jardungo duen identifikatzea, diagnostiko bat ezarriz eta txertatu beharreko jarduketa-neurrien plangintza identifikatuz.

Irismenak ez du esan nahi proiektuari mugak jarri behar zaizkionik, baizik eta zehaztu behar dela zer esparru landuko diren, zein aztertuko diren (denbora-tarte jakin batean garatu beharreko ekintzak ezartzeko) eta zer helbururi erantzuten dioten. [4.5 epigrafean →](#), aztergai diren eremuen zerrenda zehazten da.

PIAUK ez baditu esparru guztiak jorratzen, erabaki horren zergatia azaldu beharko da, eta ikuspegi partzialeko plana izaki, esparru horiek aurrerago lantzea planteatu beharko da, hasierako plana eguneratzeko mugariarekin bat etorritik. Nolanahi ere, ez da komeni irisgarritasun-plan partzialik egitea, horrek zaildu egingo bailuke horrelako lan baten helburu nagusietako bat, hau da, udalerraren edo erakundearen irisgarritasun-mailaren "argazkia" denbora errealean izatea.

Osoa ez balitz, komenigarria izango litzateke lehenengo faseetan lehenetsun handia ematen zaien esparruen identifikazioa ziurtatzea, pertsona askori eragiten dielako, irisgarritasun-premia berezia duten pertsonen bereziki eragiten dielako, komunitatearentzat interes berezia duten eremuak direlako eta abar.

Eskema honetan, PIAU idaztean aplikatu daitezkeen irismen posibleen adibideak jasotzen dira:

1. ADIBIDEA: Hiri-ingurunea

IRISMENA: Kaleak identifikatzea, oinezkoen fluxu handiena dutenak, erakarpen-poloak edo ekintza/jarduera gehien sortzen dutenak lehenetsiz.

2. ADIBIDEA: Garraioa

IRISMENA: Hiriko eta hiriarteko autobus-lineak, zerbitzu, geltoki eta markesina gehien dituzten eremuak identifikatzea, baita geltokiak, aparkalekuak eta bestelako garraiobideak ere.

3. ADIBIDEA: Eraikuntza

IRISMENA: Planak barne hartzen dituen eraikin publikoen kopurua eta horietako bakoitzean dauden elementuak (sarbideak, seinaleak, zerbitzuak, informazio ulergarria, arreta-mahaia, langileen prestakuntza, etab.)

4. ADIBIDEA: Herritarrentzako arreta

IRISMENA: Herritarrentzako informazio- eta arreta-kanalen kopurua, eta kanal horietako bakoitzean dauden elementuak (inguruneak, formatuak, IKT tresnak, edukia, dokumentazioa, etab.)

Honako gai hauek eragina izan dezakete planaren irismena zehazteko orduan:

- Aurrekontuaren erabilgarritasuna: Plana garatzeko eta ezartzeko erabilgarri dauden baliabide ekonomikoak irismenaren baldintzatzaile izango dira beti, eta, beraz, benetan eraginkorra den aurrekontu-partida duten ekintzak baino ez dira kontuan hartu beharko.
- Denbora-horizontea: Lau urteko planak direnean, irismena plana onartzen denetik lau urteko epera egokitu beharko da, eta, beraz, ikuspegi errealista eta estrategikoa izan beharko du, plana prestatzeko unean erakunde publikoaren eta eragin- eta eskumen-lurraldearen errealitatearen baitan egongo dena. Nolanahi ere, lau urteak ez dira muga gisa hartu behar, plana aplikatzeko epe edo mugari garrantzitsutzat baizik, baina ez behin betikotzat; izan ere, lehen esan bezala, plana bizirik mantendu beharko da.

Planaren irismena zehazteko, funtsezkoa da erakundea osatzen duten gobernu-arlo/sail/esparru guztien arteko koordinazioa eta elkarlana.

Irisgarritasunerako udal-planen kasuan, lehentasuna emango zaie udalerri bakoitzaren berezko ezaugarriei eta berezitasunei, hala nola kokapen geografikoari, orografiari, lurralde-antolamenduari, Euskadiko komunikazio-sareko kokapenari, izaera propio eta bereizgarriari (adibidez, ondareari lotutakoa, historiko-artistikoa, turistikoa, industrial, arrantza-hiria, logela-hiria, etab.), ezaugarri soziodemografiko eta kulturei (adibidez, biztanleria-piramidea, irisgarritasun-premia bereziak dituzten pertsonen errolda, adinaren eta sexuaren araberako banaketa, errenta-maila, asoziazionismo-maila, etab.). Hori dela eta, garrantzitsua da plan bakoitza idaztea, dagokion udalerriaren edo erakundearen berezko ezaugarrietatik abiatuta.

Tokiko erakunde publikoen kasuan, tamaina faktore erabakigarria izan daiteke planaren **irismena** eta **azterketa-fasean** kontuan hartu beharreko eremuak eta elementuak definitzerakoan.

Horrela, **udalerrri txikienek** beren eskumenak eta jarduera-eremuak murriztu ahal izango dituzte, adibidez, udal-eraikin publikoen, bulegoen eta herritarrei arreta emateko kanalen kopuruari dagokionez, baita garraio publikoko bitartekorik eta azpiegiturarik ez dagoen kasuetan ere.

lido horretan, gerta daiteke udalak azkarrago identifikatu ahal izatea udalerrian irisgarritasuna hobetzeko beharrezkoak diren zenbait ekintza.

Hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea beharrezkoa dela jarduketa horiei **plan-egitura** ematea, nahiz eta emaitza dokumentu laburragoa eta errazagoa izan tamaina handiagoko erakunde publikoekin alderatuta. Horrela, loturarik gabeko jarduerak egitea saihestuko da, eta proposatutako tresnen bidez beste jarduketa berri batzuk identifikatu ahal izango dira eta, batez ere, interes-taldeen eta herritarren parte-hartzea sustatuko da.

Planaren irismenak lotura zuzena du abiapuntuko egoeraren azterketa eta diagnostikoaren hurrengo fasearekin; izan ere, alde zurretik hautatutako eta irismenean sartutako elementu guztiak ondoren aztertuko dira.

6.3 Kanpoko adituak kontratatzeko beharra baloratzea

Nahiz eta gomendagarria izan erakunde bakoitzak irisgarritasun unibertsalaren arloko figura propioa eta espezifikoa izatea, bai eta arlo desberdinetan horri buruzko prestakuntza duten langileak izatea ere, baliteke irisgarritasun unibertsaleko plan integrala garatzeko eskura dauden giza baliabideak nahikoak ez izatea eta/edo profil espezifikoak behar izatea.

Kasu horretan, beharrezkoa da PIAU sustatzen duen erakundeak kontratazio publikoko prozesua egitea, adituen profilak edo, hala badagokio, arlo guztiak biltzen dituen enpresa bat izateko.

Kontratazio publiko hori irisgarritasun unibertsaleko plan integralaren garapena eta idazketa egiteko izango litzateke; hala ere, antzeko prozesuak egon daitezke hura ezartzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeako orduan.

Komenigarria litzateke ISEKi, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua den aldetik, erakundeko irisgarritasun unibertsalaren arduraduna nor den jakinaraztea, [Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Ekintza Plana](#) ezartzeko lankidetzeta eta koordinazioa erraztuko duten eragileen sarea definitzeko.

6.4 Pleguak egitea eta lizitazioa argitaratzea

Kanpoko langile adituak kontratatzeke beharra identifikatu ondoren, prozesu horien berezko dokumentazioa idatziko da, preskripzio teknikoaren pleguan eta administrazio-klausulen pleguan arreta jarrita.

Agiri horiek kontratazio publikoari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera arautuko dira. Araudi hori [Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman](#) kontsulta daiteke, eta erakunde publiko bakoitzaren behar espezifikoak jaso daitezke, adibidez, eskatutako profilei edo planaren esparruan eskatutako lanei dagokienez, horien irismena barne.

6.5 Plana egiteko proiektua aurkeztea eta zabaltzea

Irisgarritasun unibertsaleko plana abian jartzeak hainbat dibulgazio-, komunikazio- eta marketin-ekintza egitea dakartza, proiektuaren fase desberdinetan.

Ekintza horien helburua bikoitza da. Batetik, plana egiteko ekimena ezagutaraztea eta horren berri ematea. Bestetik, interes-taldeek eta herritarrek hurrengo faseetan parte har dezaten eskatzea.

Egokiena, planaren berriazko komunikazio- eta marketin-proiektua egitea da, ekintza guztiak identifikatu eta ordenatuko dituen, eta xede-publikoa, kanalak, formatuak, edukiak eta mezuak definituko dituen. Komunikazio- eta marketin-proiektu honen balio erantsia da interesdun talde guztiak irisgarritasun unibertsalaren arloan kontzientziatzea.

Komunikazio- eta marketin-proiektu hau garatu ezin bada, gutxienez, honako ekintza hauek egingo direla ziurtatu behar da:

- **Planaren hasierako aurkezpena:** planaren jatorriaren, helburuen eta faseen berri ematea interes-talde guztiei. Bertan adierazi behar da planak parte-hartze prozesuak garatzea aurreikusten duela, eta, horretarako, berriz ere harremanetan jarriko dela eragileekin.

Komenigarria litzateke ISEKi, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua den aldetik, alde aurreko jakinarazpena egitea ekintza hori [Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Ekintza Plana](#)ren jarraipenean txerta dadin.


- **Partaidetza-prozesuen komunikazioa:** bai analisi- eta diagnostiko-fasearen berezko prozesuena, bai plana idazteko fasean eta ondorengo baliozkotzean aurreikusitakoena (adibidez, kanpora begira, *herritarren inkesta**, eta barnera begira, elkarizketak eta/edo lantaldeak arlo/sail desberdinekin).
- **Emitza partzialak zabaltzea:** fase bakoitza amaitzean egin ohi dira, lortutako informazioa tratatu eta azken dokumentuak idatzi ondoren. Horrela, analisiaren eta diagnostikoaren amaierako dokumentua, planaren zirriborroa eta planaren azken dokumentua zabalduko dira, jatorrizko formatuan edo laburpen exekutiboaren bidez.
- **Planaren azken aurkezpena:** gomendagarria da ekintza espezifiko bat egitea planaren azken dokumentua ezagutarazteko, bertan jasoko baitira interes-taldeen eta herritarren ekarpenak eta parte-hartzea. Dokumentu horrek, gainera, irisgarritasun unibertsalaren arloko estrategia gauzatzen du, datozen lau urteetan erakundea gidatuko duena, herritarren eskura dauden ingurune, produktu, ondasun eta zerbitzuetan esku hartuz eta horietan eraginez. Horregatik, estrategia hori zenbat eta ezagunagoa izan, orduan eta handiagoa izango da eragile guztien inplikazioa.

Hedapen- eta komunikazio-ekintza guztiak honako hauen arabera diseinatu beharko dira: eskura dauden baliabideen arabera (teknikoak, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak), xede-publikoaren arabera eta une bakoitzean lortu nahi den helburuaren arabera. Horretarako, kanal, tresna eta formatu ugari erabil daitezke, eta beharrezkoa da horietan guztietan irizpide irigarriak bermatzea (adibidez, informazioa hizkuntza argian, *irakurketa errazean**, *braille**, hainbat kanal erabiltzea, etab.).

Honako hauek dira egin daitezkeen **ekintzen adibideak**:



7. 1. FASEA. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA ETA DIAGNOSTIKOA



11. irudia Garatu beharreko faseen eskema orokorra. 1. fasea. Analisisa eta diagnostikoa

Hasierako egoeraren analisi- eta diagnostiko-fasea erabakigarria da irisgarritasun-plan integrala egiteko. Fase horretan, irismenean identifikatu diren elementuen irisgarritasun unibertsalaren errealitatea ahalik eta egiazkotasunik handienarekin ezagutzeko beharrezkoa den informazio guztia bildu, aztertu eta tratatuko da.

Errealitate hori erakundearen proposamen estrategikoan ezarri ziren ARDATZETAKO bakoitzean erakundeak duen egoerari dagokio, kontuan hartuta ildo bakoitzean analisi-sistematika egokitu beharko dela.

- BEHARREZKO EGITURA.**
Zer egitura behar den ekintzak gauzatzeko. OINARRIA da.

 1. Gobernantza: irisgarritasunaren kudeaketa.
 2. Eskubideak bermatzeko esparru juridikoa.
- BEHARREZKO ALDAKETAK.**
Zer aldaketa egin behar diren azken helburuetara iritsi ahal izateko. BIDEA dira.

 1. Erantzukidetasuna eta partaidetza.
 2. Irisgarritasunean trebatzea.
- IRISGARRITASUNA SUSTATZEA.**
Nora iritsi nahi den, HELBURUA da.

 1. Irisgarritasuna sustatzea.
 2. Berrikuntzaren bidezko irtenbideak.

Fase horren garapena eskema honen araberakoa da:

ANALISIA	Erakundearen azterketa orokorra
	Dokumentuen analisia
	Partaidetza-prozesuak
	Landa-lana
DIAGNOSTIKOA	Emaitzak bateratzea

Sakoneko azterketa-prozesu horrek hainbat datu-mota bilduko ditu, bi ikuspegi desberdinetatik:

DATUAREN JATORRIA

- ❖ Oinarrizko datu-iturriak: planerako ad hoc diseinatutakoak.
- ❖ Bigarren mailako datu-iturriak: lehendik daudenak.

DATU-MOTA

- ❖ Datu **kualitatiboak**: xede-publikoak hautemandako benetako beharrak, horien balorazioa eta lehentasunak ezagutzea eta ulertzea ahalbidetzen dute. Hurbilketa kualitatiboak ere laguntzen du datu kuantitatiboari "zentzua ematen" eta horiek interpretatzen, baita bigarren mailako iturrietatik datozen beste batzuk ere. Horrelako datuak, adibidez, *elkarrizketa ireki erdi-egituratuetatik** eta *eztabaida-taldeetatik** ateratzen dira.
- ❖ Datu **kuantitatiboak**: aukera ematen dute gizartearen parte-hartzea jasotzeko eta pertsona kopuru zehaztugabe batek haien sinesmen, balio, ohitura, lehentasun, kezka eta abarrei buruz duen iritzia ezagutzeko. Horrelako datuak lortzeko gehien erabiltzen den teknika inkestak dira.

Jarraian, irisgarritasun-plan integralaren azterketa-prozesuak kontuan hartu behar dituen alderdiak jasotzen dira, hala nola, dokumentuen azterketa, partaidetza-prozesuak, datuen bilketa eta landa-lana, bai eta hori lortzeko erabili ohi diren teknikak eta tresnak ere.

7.1 Erakundearen azterketa orokorra

Irisgarritasun Unibertsalaren Plan Integrala behar bezala egin ahal izateko, ezinbestekoa da honako hauek jakitea: zein den aztergai izango den erakundea, zein den haren jardun-eremua, harekin harremana duten pertsonen profila, zein den orain arte irisgarritasun unibertsalaren arloan egin den lana eta zein prozesu erabili diren horiek abian jartzeko, besteak beste.

Abiapuntu gisa, erakundearen mapa fisikoa, pertsonala eta funtzionala eta haren jardun-ingurunea ezagutzeko balio dezakeen guztiaren lehen bilduma jaso beharko da. Zehazki,

- Ingurunearen osaera eta oinarriko ezaugarriak.
- Alderdi topografikoak, historikoak eta kulturalak.
- Datu demografiko garrantzitsuenak.
- Oinarriko datu sozioekonomikoak.
- Biztanleriaren mugikortasuna.
- Jarduera-gune nagusiak identifikatzea.
- Zerbitzu publikoak zein pribatuak identifikatzea.
- Irigarritasunari buruz eskuragarri dauden datuak, mugikortasunaren, garraioen, eraikin publikoen arloan, bai eta eskumen publikoak diren bizitegi-eraikinetan eta hiri-inguruneetan ere.
- Eremuan diharduten hirugarren sektoreko elkarte nagusien zerrenda.
- Plangintzako lurralde-tresnak, irigarritasun-planak edo indarrean dauden beste plan sektorial batzuk, eta erakundearen eremutik kanpo dauden beste plan edo ekimen batzuen eragina.
- Irigarritasun unibertsala arautzen duten udal-ordenantzak.
- Irigarritasunaren arloan eragina duten jarduerak, zerbitzuak edo tresnak, programatuta daudenak, aurreikusita edo abian jarrita.

7.2 Dokumentuen analisisa

Tipologia desberdinetako dokumentu-iturriak aztertzean datza, irigarritasun unibertsalari buruzko arauen eta politiken testuingurua zehazteko.

Alde batetik, iturri horien **irismen geografikoa** hartuko da kontuan, tokiko eta tokiz gaindiko iturriak (probintziakoak, autonomikoak, estatukoak, nazioartekoak) berrikusiko direla ziurtatuz.

Bestalde, iturri horietan dauden **jarduera-eremuak** hartuko dira kontuan (adibidez, mugikortasuna, garraioa, hirigintza, parkeak eta lorategiak, herritarrentzako arreta, berrikuntza eta garapen teknologikoa, kudeaketa, etab.).

Hona hemen aztertu beharreko dokumentuen adibide batzuk:

- ❖ **Arau-esparrua:** maila eta irismen desberdineko arauak, bereziki kontuan hartuta udal-ordenantzak eta -erregelamenduak, eta horiek irigarritasun unibertsalaren arloan duten eragina.
- ❖ **Dokumentu estrategikoak eta politikoak:** indarrean daudenak eta hainbat eremuri eragiten dietenak (adibidez, hiri-antolamenduko plan orokorrak, hiri-mugikortasun iraunkorreko planak, turismoko plan estrategikoak, berdintasun- eta aniztasun-planak, etab.). Dokumentu horien artean egongo dira hirigintza-plangintzako tresnak, urbanizazio-proiektuak eta obrak gauzatzeko proiektuak, irigarritasun

unibertsalaren erabateko eta zeharkako inklusioa bermatuz.

- ❖ **Iturri estatistikoak:** inkestak eta erroldak, erregistro administratiboak. (Estatistika-iturriei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu [V. eranskina](#) →).

Dokumentuen analisi egokia bermatzeko, beharrezkoa izango da iturri bakoitzaren data jartzea eta jatorria erregistratzea.

Dokumentuen analisiaren atal hau txosten honetako [IV. eranskina](#) → izenekoan jasotako dokumentu-iturriei buruzko edukiekin osa daiteke.

Nola jaso dokumentuen analisiari dagokion fase hau PIAUn bertan?

Aztertutako iturriak PIAUren eranskin batean zehaztuko dira, eta emaitza nagusiak laburbilduko dituen kapitulua txertatuko da.

Arauen azterketatik, bai arau juridikoetatik, bai arau teknikoetatik, landa-lanean inguruneak, produktuak, ondasunak eta zerbitzuak ebaluatzeko erreferentzia izango diren parametroak aterako dira.

Bestalde, estatistika-iturrietatik nahiz iturri estrategikoetatik ateratako informazioa AMIA analisi- eta diagnostiko-tresnaren bidez islatuko da PIAUn, eta lau aldagaietan bereiztuko dira ondorioztatutako gaiak: ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak.

7.3 Partaidetza-prozesuak

Analisi- eta diagnostiko-fase honetan, *ikerketaren sozialeko hainbat teknika** aplikatuko dira, eta, horren ondorioz, ahalik eta interes-talde gehienek parte hartzea ahalbidetuko da, informazio kualitatiboa zein kuantitatiboa bilduko dela bermatuta.

Horrela, identifikatutako interes-talde bakoitzerako, gizarte-ikerketako zer teknika erabili eta zer eduki sartu zehaztuko da, horietako bakoitzetik lortzea espero den informazioaren arabera.

Interes-taldeak

Erakunde bakoitzak bere interes-taldeak zein diren zehaztu beharko du, hau da, bere erabaki estrategikoen zati erabakigarriak zein eragile/pertsona/erakunde diren, bai diseinuan, kudeaketan, ezarpenean eta abarretan parte hartzeagatik, bai azken hartzailleak izateagatik.

Honako interes-talde hauek ohikoak dira erakunde publikoek sustatutako planen partaidetza-prozesuetan:

- ❖ **Barneko mailan:**
 - Langile publikoak (teknikoak zein politikoak).
 - Adituak eta profesionalak, unean uneko laguntzaileak.
- ❖ **Kanpoko mailan:**
 - Herritarrak.
 - Beste administrazio eta erakunde publiko batzuk.
 - Hornitzaileak (adibidez, enpresak).

- Elkarre zibilak eta hirugarren sektorekoak.
- Elkargo profesionalak.
- Hezkuntza-erakundeak.

Partaidetza-teknikak

Partaidetza-prozesuetan *ikerketa sozialeko teknikak** erabiltzen dira, identifikatutako eragile desberdinetatik informazio interesgarria lortzeko helburuarekin. Teknika horiek, besteak beste:

- ❖ *Elkarizketa ireki erdi-egituratuak**: horiek garatzeko, harremanetarako funtsezko informatzaileak hautatu behar dira, eta erreferentziazko gaiekiko gidoia ere prestatu behar da. Elkarizketak aurrez aurre, telefonoz edo online egin daitezke.
- ❖ *Eztabaida-taldeak**: era berean, parte-hartzaileak identifikatu, hautatu eta harremanetan jarri ondoren, komeri da talde horiek aurrez aurre garatzea; hala ere, programa eta tresna digitalak ere egon badaude online egin ahal izateko. Parte-hartzaileen kopurua 8 eta 12 pertsona artekoa izatea eta iraupena 2 orduetik gorakoa ez izatea gomendatzen da.
- ❖ *Herritarren inkesta**: plana garatzen duen erakundeak hautemandako informazio-beharrak bilduko dituen galdetegia prestatu ondoren, beharrezkoa izango da inkesta behar bezala zabaltzea, ahalik eta erantzun gehien jasotzeko, batez ere interes-taldearen artean.

Teknika horiek garatzeko berariazko profilak behar dira, kanpoko aditu gisa kontrata daitezkeenak.

Edukien diseinua

Partaidetza-prozesurako interes-taldeak identifikatu eta erabili beharreko teknikak hautatu ondoren, galdera hau sortzen da:

Zer informazio lortu nahi da?

Interes-talde bakoitzak, bere ezaugarrien arabera, informazio espezifikoa eman ahal izango du, beste batzuek eman dezaketenaz bestelakoa.

Interes-taldearen ezaugarriak kontuan izateak edukien diseinua erraztuko du. Horrela, herritarrek beren pertzepzioa, iritzia eta esperientzia eskain dezakete ezagunak dituzten eta egunerokoan erabil ditzaketen ingurune, produktu eta zerbitzuei buruz; aldiz, adibidez, erakundearen arlo desberdinetako talde teknikoek kudeaketarekin lotutako erronkak eta aukerak zehatz-mehatz ezagutuko dituzte.

Lortu nahi den informazioa zehaztu ondoren, eta talde bakoitzak eman dezakeenaren arabera, tresna bakoitzaren edukiak diseinatuko dira:

- ❖ Inkesten *galdetegiak*: kontuan izan behar da luzeegia den inkesta batean zailagoa dela erantzun osoak lortzea. Gainera, ikerketa-teknika honek ez du informazio zehatza edo sakona emango, baizik eta planteatutako esparru eta gaien ikuspegi orokorra eskainiko du, ondorengo lanen orientazioa

erraztuz.

- ❖ *Elkarizketa ireki erdi-egituratu*^{*} gidoiak: galderen diseinua funtsezkoa izango da elkarizketatuak gidatzeko, eta, aldi berean, nolabaiteko askatasun-tartea ematen du libreki adierazi ahal izateko.
- ❖ *Eztabaida-talde*^{*} panelak, aurkezpenak eta gainerako tresnak: bai formatu presentzialeko taldeak bai formatu birtualeko taldeak izan, beharrezkoa izango da gidoia, testuinguruaren aurkezpena eta tresnak, hala nola panelak, kartoi meheak, post-it-ak, eta abar prestatzea.

Herritarrei zuzendutako inkesta^{*} egiteko galdetegi-egituraren adibidea:

- ❖ Proiektuaren eta inkestaren aurkezpena (helburuak, egitura, inkesta erantzuteko gutxi gorabeherako denbora, harremanetarako pertsonak).
- ❖ I. multzoa. Erabiltzailearen profila (inkestatutako pertsonen buruzko funtsezko informazioa biltzera bideratua, hala nola, sexua, adina, desgaitasuna duen pertsona den eta hala bada zer motatakoa, lan-egoera, etab.).
- ❖ II. multzoa eta hurrengoak. Irisgarritasun unibertsaleko planean zehaztutako irismenarekin bat etorritik, intereseko eremuak eta elementuak ikertzera bideratua:
 - Hiri-ingurunea (bide publikoak, ibilbideak, seinaleak, oztopoak, etab.).
 - Parkeak, lorategiak eta ingurune naturala (sarbideak, bidexkak eta ibilbideak, zoruak eta zoladurak, haurrentzako jolas-parkeak, zirkuitu bioosungarriak, etab.).
 - Eraikitako ingurunea (adibidez, eraikin publiko jakin batzuk, etxebizitza-parkea).
 - Mugikortasuna eta garraioa (adibidez, geltokiak, markesinak, ibilgailuak, seinaleak, informazioa eta komunikazioa, taxi-geltokiak, taxi irisgarriak, etab.).
 - Arlo soziosanitarioa (ingurunea, zentroak, herritarren arreta, etab.).
 - Hezkuntza-arloa (ingurunea, ibilbide seguruak, ikastetxeak, herritarren esperientzia, etab.).
 - Kirol-, kultura-, aisialdi- eta astialdi-arloa (azpiegiturak, instalazioak, jarduerak, informazio- eta komunikazio-bideak).
 - Turismoa (baliabideak, esperientziak, turismo-bulegoa, etab.).
 - Hilerria (sarbideak, barruko irisgarritasuna).
 - Monumentu-ondarea eta industria-ondarea (monumentu-multzoak, arkeologia-aztarnategiak, interpretazio-zentroak, etab.).
 - Itsas pasealekua, kirol-portua, begiratokiak, hondartzak (ibilbide interesgarriak, seinaleak, aparkaleku irisgarriak, etab.).
- ❖ Azken blokea. Balorazio-galdera (zenbakizko eskala) eta/edo azken iritzia adierazteko galdera irekia.

7.4 Landa-lana

Aurreko zereginei garrantzia kendu gabe, landa-lana funtsezko zutabea da azterketalan.

Planaren irismenean identifikatutako elementuak eta aurretiko dokumentuen analitika sortutako informazioa abiapuntutzat hartuta, landa-lana PIAU osatzen duten eremuetako bakoitzean identifikatutako elementuen in situ behaketan eta analisisan oinarritzen da.

Landa-lanak elementu horietan dauden irisgarritasun-oztopoak identifikatzeko aukera ematen du, eta iruzkinak, material grafikoa, ez-betetzeen eta antzemandako gabezien identifikazioa eta jardunbide egokien adibideak eman ditzake.

[Nola jaso datuen bilketa fase hau PIAUn bertan?](#)

[II. eranskina](#) → izenekoak datu-fitxaren eskemaren adibidea dakar, landa-lanean informazioa biltzeko orientabidea eta laguntza eman dezakeena, eta hurrengo faseetan zehaztuko diren atalekin osatu ahal izango dena.

DATUAK BILTZEKO FITXAK	
KODIFIKAZIOA	ERAKUNDEAREN IDENTIFIKAZIOA DAGOKION PLANAREN EREMUA AZTERTUTAKO ELEMENTUAREN IDENTIFIKAZIOA/KOKAPENA
EGUNGO EGOERARI BURUZKO DOKUMENTAZIO GRAFIKOA (argazkiak, krokisak, planoak)	ARAUZKO ESKAKIZUNAK ARAUDIA BETETZEA MANTENTZE-LAN EGOKIAK BABES-MAILA (historikoa, kulturala, ingurumenekoa...) BESTE ELEMENTU EDO ESPARRU BATZUEKIKO INPLIKAZIOA
OHARRAK	
BISITAREN DATA	BISITAREN ARDURADUNA

12. irudia Datuak biltzeko fitxaren adibidea

Datuen bilketa sistematizatzeko, eskuragarri dauden metodologiak eta tresnak erabili daitezke, baina egungo araudira eta Euskadin indarrean dagoenera egokitu beharko dira. Irizpideak homogeneizatzeko eta formularioak sistematizatzeko bildutako datuak erraz informatizatzea eta datu-base erlazional batean antolatzea ahalbidetuko du. Datu-base hori oso erabilgarria izango da bildutako informazio guztia ondoren ustiatzeko eta aztertzeko.

Lan horren emaitza dossier bat izango da, honako hauek konbinatuko dituena: elementuaren identifikazioa, zer arauzko eskakizunen mende dagoen, irisgarritasun unibertsalaren hiru alderdiak bermatzeko beharrezkoak diren bestelako eskakizunak, eremu desberdinetako ez-betetzeen deskribapena, idatzizko azalpenarekin eta oztopo eta ez-betetze horiek hobeto identifikatzeko material grafikoarekin.

Ez-betetzeek eta gabeziek, jardunbide egokiek eta egindako aurrerapenek isla izan beharko dute aurrerago PIAUn jasotako AMIA azterketan.

7.5 Diagnostikoa


Esparru eta elementu desberdinen azterketa amaitu ondoren, beharrezkoa da lortutako emaitzak integratzea, planaren eremu bakoitzerako egungo egoeraren eta

ikusitako joeren ikuspegi bateratua erakusteko. Horretarako, egindako azterketan oinarrituta egin beharrekotzat jotzen diren **jarduketa guztiak identifikatuko** dira.


Integrazio- eta zehaztapen-ariketa hori errazten duten hainbat tresna daude, eta horrelako planetarako ohikoak dira **AMIA** eta **CAME** matrizeak:

❖ **AMIA:** AMIA matrizeak hobetu beharreko arloak (ahuleziak), inguruaren mehatxuak, indarguneak eta aukerak identifikatzeko balio du. Tresna horri esker, emaitzak eremuen arabera banakatu daitezke (adibidez, kudeaketa, hirigintza, eraikuntza, etxebizitza, mugikortasuna, garraioa, komunikazioa, prestakuntza, etab.).

❖ **CAME:** AMIA matrizeatik abiatuta, metodologia hau ahuleziak zuzentzean, mehatxuei aurre egitean, indarguneak mantentzean eta aukerak ustiatzean datza. Lortutako enuntziatuek, Planaren printzipioen arabera, garatu beharreko jarduketak ekarriko dituzte, Plana antolatzen den eremu bakoitzean aplikatzeko. Horrela, Planaren zehaztapena erraztuko da, eta zuzenean Planaren hurrengo fasera bideratuko da, Jarduera Planaren planteamenduari dagokiona.



13. irudia Analisi eta diagnostikorako AMIA eta CAME matrizeak



14. irudia Hautemandako ahultasuna zuzentzeko adibidea


Ez da ahaztu behar diagnostikoa, analisia bezala, proposamen estrategikoan identifikatutako ildoen arabera egin behar dela, eta hori garrantzitsua da ondorengo fasea behar bezala egin ahal izateko. Izan ere, fase horretan ekintza guztien lehentasuna ezarriko da, eskura dauden baliabideen arabera. Ikus [1. eranskina](#) →

Nola jaso diagnostiko-fase hau PIAUn bertan?

AMIA matrizea PIAUn sar daiteke modu bisualean, lau dimentsio dituen taula edo irudi baten bidez: ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak. Dimentsio horietako bakoitza osatzen joango da azterketa-fasean zehar eremu eta elementu bakoitzari ematen zaizkion balorazioekin eta emaitzekin.

Jarraian, CAME tresnak, formatu berarekin, enuntziatu bakoitzaren eraldaketa jasoko du, jarduera-planean txertatu beharreko ekintzak zehaztuz.

8. 2. FASEA. JARDUERA-PLANA



15. irudia Garatu beharreko faseen eskema orokorra: 2. fasea. Jarduera-plana

Jarduera-plana PIAUren zatia da, eta bertan sartzen dira irisgarritasun unibertsala hobetzeko garatuko diren ekintzak, jarduera-ardatz bakoitzean finkatutako helburu estrategikoei erantzunez. (Ikus [4. epigrafea](#) → Proposamen estrategikoa).

Proposatutako ekintzen bideragarritasuna bermatzeko, horietako bakoitzak aurrekontua eta gauzatze-epaia izan beharko ditu, bai eta arduraduna ere (adibidez, udaleko arlo jakin bat).

8.1 Jarduteko neurriak identifikatzea

Plana idazteko fase hau, 1. fasean (Abiapuntuko egoeraren analisia eta diagnostikoa) lortutako emaitzetatik abiatzen da, eta Planak jasoko dituen jarduera-proposamen bakoitza identifikatzea, adieraztea eta zehaztea du helburu.

Proposamen horien xedea izango da erakundea eta haren jarduera-eremua nabarmen hobetzea irisgarritasunaren arloan, eremu bakoitzaren arteko beharrezko oreka aplikatuz; izan ere, adibidez, gutxirako balio du (ikuspegi orokor batetik) irisgarritasun-maila handiko hiri-ingurunea izateak, baldin eta, aldi berean eta ahalegin esanguratsuak eginez, ez badira hobetzen irisgarritasun-mailak eraikuntzaren ingurunean edo mugikortasunaren, garraioaren eta herritarrekiko arretaren edo komunikazioaren eremuetan.

Jarduera-proposamenak bat etorriko dira egoeraren diagnostikoarekin, eta hautemandako ahultasun edo oztopo bakoitzari ahalik eta erantzunik onena emango dion jarduerak diseinatzera bideratuko dira. Jarduera hori irisgarritasunaren arlo teknikoarekin, antolakuntzakoarekin edo kudeaketarekin lotuta egon daiteke, eta hautemandako arazoari erantzun beharko dio.

DIAGNOSTIKORAKO FITXAK		
Datu-bilketari buruzko informazio gehigarria		
DOKUMENTAZIO GRAFIKOA (argazkiak, krokisak, planoak)	JARDUERA-PROPOSAMENA	Ohikoa Singularra Berezia
	ELEMENTUAREN EGOERA	Mantentze-lana Berritzeko beharra Eraldatuta
DESKRIBAPENA	DIAGNOSTIKOA	Irigarria Erabilgarria Moldagarria Ezin da egokitu
	LOTUTAKO ARDATZ ESTRATEGIKOA ILDO ESTRATEGIKOAREN IDENTIFIKAZIOA	
OHARRAK		
AZTERKETAREN DATA	AZTERKETAREN ARDURADUNA	

16. irudia Diagnostikorako fitxaren adibidea

8.2 Jarduteko neurriak lehenestea

Beharrezko jarduketa-neurriak identifikatuta, horiek antolatzeke eta lehenesteko ordena esleitzeko unea da. Horrela, PIAUren Etapa Plana zehaztu ahal izango dugu, zeinak esparruka antolatuta eta denboran zehar banatuta jasoko baititu jarduera-proposamenen multzoak, ezarritako lehenesteko arabera.

Neurriak lehenesteko, **materialtasun-matrizea** erabil daiteke. Tresna bisual horrek bi aldagaien arabera sailkatzen ditu neurriak (adibidez, konplexutasuna eta beharrezko baliabideak), eta esleitutako lehenesteko-mailaren arabera, honela geratuko lirateke:

- **Neurri estrategikoa:** inpaktu handiko eta garapen konplexuko neurria, epe ertain-luzera ezarri beharrekoa (adibidez, hiriarteko autobusen flota irigarria).
- **Lehenesteko handiko neurria:** inpaktu handiko neurria eta garatzen erraza. Planaren lehen etaparen egin behar da (adibidez, web-atari irigarria).
- **Etengabeko hobekuntzako neurria:** inpaktu txikiko neurria eta garatzeko zaila. Pixkanaka txertatzen da, etengabeko hobekuntzen bidez (adibidez, prestakuntza eta sentsibilizazioa).
- **Hobekuntza azkarreko neurria:** inpaktu txikiko neurria eta garatzen erraza. Neurri horiek garatu beharreko lehenak dira.

Materialtasun-matrizea eraikitzeko, planaren baterako diseinuan parte hartu zuten lantalde berberak deitu daitezke. Nolanahi ere, ezinbestekoa da profil politikoak eta teknikoak egotea, neurrien lehentasuna ezartzeko kontuan hartuko baitira neurrien eragina eta horiek garatzeko erraztasuna, eskura dauden baliabide tekniko, material eta ekonomikoak dagokienez.



17. irudia Materialtasun-matrizea

Pertsonen irisgarritasuna eta segurtasuna arriskuan jartzen duten oztopo edo zailtasun guztiek, bereziki kalteberenek, lehentasuna izan beharko dute, eta hartu beharreko premiazko edo talka-neurrien multzoan sartu beharko dira.

Neurri jakin bat lehenesteko beste faktore erabakigarria neurri hori hartzeagatik onuradun diren pertsonen bolumena edo ehunekoa da; logikoa denez, onuradunen ehuneko handiagoa duen neurriari eman beharko zaio lehentasun handiagoa.

8.3 Jarduteko neurrien aurrekontua eta egutegia

PIAUEk onartzen direnetik lau urteko epea dutenez, proposatutako ekintza gehienak epe horretan egin beharko dira.

Garatu beharreko jarduketak neurriak zehaztu eta horien lehentasuna ezarri ondoren, horietako bakoitzerako, gauzatze-epea eta horri lotutako aurrekontua zenbatetsiko dira.

Bi aldagai horiek, hau da, lehentasunaren arabera neurri-motak eta aurreikusitako gauzatze-epeak, aukera emango dute neurri guztiak hainbat urterako lan-planean islatzeko, betiere erakunde publikoan indarrean dauden estrategien arabera.

8.4 Ekintzen fitxak

Gauzak horrela, ekintza bakoitzak fitxa bat izan beharko du, gutxienez informazio hau jasoko duena:

- Ekintzaren izena eta erreferentzia-zenbakia.
- Jarduera-ildoak eta dagokion ardatz estrategikoa.
- Zein helburu espezifikorik erantzuten dion.
- Neurri-mota (lehentasuna).
- Deskribapena.
- Denbora-horizontea edo aurreikusitako gauzatze-epea.
- Aurrekontua.
- Arduraduna.
- Ebaluazio-adierazleak.

Neurri bakoitza behar bezala garatzeko ardura duten taldeak/arloak/sailak/unitateak identifikatzearen helburua da erakunde publikoaren barruan eskumenak eta zereginak banatzea. Horretarako, fitxa "pertsonalizatuak" egin daitezke arlo bakoitzerako, irisgarritasun unibertsala hobetzeko egindako ekintzen inpaktua jasotzeko.

Jarduera-proposamenak PIAUren esparruen arabera antolatu eta ordenatuko dira, eta kode alfanumerikoa emango zaie. Kode hori proposamen guztien planoetan eta xehetasun-planoetan islatuko da, baita laburpen-tauletan ere.

Irisgarritasuneko Plan Integrala dokumentu konplexua da, eta, beraz, funtsezkoa da dokumentua bera irisgarria izatea, haren zati guztiak erraz aurkitzeko modukoak izatea eta puntu beltzen, irtenbideen, lehentasunen ordenaren, proposamen bakoitzaren zailtasun-mailaren eta dagozkien aurrekontuen jarraipena egiteko aukera ematea.

1.1 ekintza (Izena)		
Ildo eta ardatz estrategikoa:		
Helburu estrategikoa:		
Neurri mota (lehentasunaren arabera, koloreen bidez adierazi daiteke)		
Deskribapena:		
Aurrekontua:	Denbora-horizontea:	Arduraduna:
Adierazleak:	<ul style="list-style-type: none"> - 1. adierazlea - 2. adierazlea - 3. adierazlea 	

8.5 Jarduera-planaren inplikazioak


Ekintza-plan guztietan dago aldaketaren beharra, hau da, esparru, ingurune, produktu, ondasun eta zerbitzu jakin batzuetan aurrerapausoak, hobekuntzak eta eragin positiboak bultzatzeko beharra, hain zuzen.

Iriskarritasun unibertsalak berezko zeharkakotasuna duenez, eta ikuspegi hori, gainera, Euskadiko Iriskarritasun Estrategiak berak jaso eta sustatzen duenez, aldaketa horiek hainbat jarduera-eremutan izango dute eragina, eta PIAUren xede diren jarduera-eremu guztietan.

Hala, ekintza-planaren inplikazioen artean honako hauek aipa daitezke:

- Aldaketak tokiko arauen testuinguruan: udal-ordenantzak eguneratzen hasi eta arau berriak garatzeraino.
- Dauden protokoloak egokitzea eta protokolo berriak garatzea (adibidez, herritarren arretarako protokoloak edo ekitaldietako segurtasun- eta larrialdi protokoloak).
- Obretako iriskarritasun-neurriak.
- Aldian-aldiko ekitaldietan: iriskarritasun- eta inklusio-neurriak, giza baliabide eta baliabide tekniko egokiak, segurtasun-neurriak eta abar kontuan hartzea.
- Herritarren parte-hartzea: herritarrekin komunikatzeko teknikak, tresnak eta kanalak sustatzea, elkarrizketa eta entzute handiagoa bultzatzeko, eta, horrela, gardentasuna eta gobernantza sustatzeko.

9. 3. FASEA. KUDEAKETA-PLANA



19. irudia Garatu beharreko faseen eskema orokorra. 3. fasea. Kudeaketa-plana


Plana bera antolatzen duten aurretiko lanak eta 4 faseak egin ondoren, lanaren azken zatira iritsiko gara, eta hori ez da fase bat izango. Bertan, planaren aplikazioa nola kudeatu eta nola kontrolatu landuko da, eta jarraipen-mekanismoak ezarriko dira. Horretarako, adierazle batzuk hautatuko dira, kuantitatiboak ez ezik kualitatiboak ere, planaren aplikazioaren jarraipena ahalik eta zorrotzen eta eraginkorrena egitea ahalbidetuko dutenak, betiere kontuan hartuta ezaugarri horiek dituen plan batek malgua izan behar duela, aldeaz aurretik espero ez diren eta aurreikusteko zailak diren agertokietara egokitu ahal izateko, desoreka eta ahultasun handiko mundu batean bizi garen aldetik.

9.1 Aginte-taula

Aginte-taulak planaren jarraipena sistematizatzen laguntzen du, eta honako hauek jasotzen ditu, modu bisualean eta jarduketa-neurri bakoitzerako:

- Neurketa-adierazlea: ahal dela, kopuru edo ehuneko bidez adierazita (adibidez, egindako prestakuntza-ekintzen kopurua, eskura dauden tresna digitalen kopurua).
- Jarduketa gauzatzeko arduraduna (adibidez, turismo-arloa, gobernuko arlo guztiak).
- Dagokion aurrekontua, bai zenbatetsitako zenbatekoari dagokionez, bai finantzaketa-iturriari dagokionez; horrela, planean segurtasun osoz finantzatu ezin diren neurriak sartzea ekidingo da.
- Ekintzaren lehentasun-maila (ikus [7.1 epigrafea](#) →)

Aginte-taula jarduketa-neurri bakoitzerako osatutako fitxetan (ikus [7.3 epigrafea](#) →) jada agertzen den informaziotik abiatuta egin daiteke, eremu bakoitzean jasotako datuak erabiliz.



20. irudia Planaren jarraipena egiteko aginte-taularen eskema

Jarraipen-sistema horrek aukera emango du planaren ezarpen-mailaren ikuspegi zehatza lortzeko, planaren lorpen-mailaren balantzea egiteko, neurri bakoitzari lotutako adierazleetatik lortutako emaitza nagusiak aztertzeko eta etorkizuneko jardun-ildoetarako proposamenak egiteko.

Planaren ebaluazio- eta jarraipen-prozesuak, gainera, beharrezko doikuntzak sartzea errazten du, adibidez, testuinguru ekonomikoan, sozio-demografikoan, segurtasunekoan eta abarretan izandako aldaketan ondorioz, eta urteko txostenen bidez planaren etengabeko berrikuspena ahalbidetzen du.

Prozesu horren osagarri gisa, erakundeak beti du aukera ikuskapen estrategikoak egiteko, hau da, plan estrategikoetara, PIAU kasu, zuzendutako auditoretzak egiteko, eta gomendagarria da beti horretarako behar bezala gaitutako erakundeek eta erakunde publikotik kanpokoek garatzea, hau da, hirugarrenek egindako auditoretzak izatea.

9.2 Baliozkotzea

Plana interes-taldeekin eta herritarrekin baliozkotzeko prozesua lantzeko, beharrezkoa izango da hainbat teknika erabiltzea, zuzendu nahi zaion taldearen profilararen arabera. Adibidez, herritarren iritzia errazago biltzeko, mikro inkestak erabil daitezke, erraz ulertzeko moduko formatuetan, eta lan teknikoetarako, berriz, lantaldeak.

Plana baliozkotzearen azken helburua da planaren idazketa bukatutzat ematea eta ondoriozko dokumentua onartzea, eta, horrela, adostasuna lortzea haren edukari, ezarpen-prozesuari eta ondorengo jarraipen eta ebaluazioari dagokienez.

Planaren fase guztietan zenbat eta parte-hartze handiagoa izan, orduan eta azkarragoa eta errazagoa izango da baliozkotze-prozesua, dokumentua ezaguna izango baita interes-talde guztientzat eta herritarrentzat.

9.3 Azken dokumentuak prestatzea

Hauek dira planak jaso behar dituen azken dokumentuak:

- Analisi- eta diagnostiko-dokumentua.
- Jarduera-planaren dokumentua.
- Kudeaketa-plana.
- Laburpen exekutiboa.
- Aurkezpena.

Horiek guztiek hizkuntza errazean idatzita egon beharko dute, eta kontsultatu ahal izateko formatu eskuragarriak erabili beharko dira, *formatu alternatiboak** barne. Era berean, dokumentu horien zabalkunderako bitarteko kanalen irisgarritasuna bermatu beharko da. Horrek, barne hartzen ditu paperezko dokumentuak eta web orrietan eta/edo aplikazio mugikorretan kokatutako formatu digitalak.

Formatu digitalak gero eta ohikoagoak dira, moldagarriak direlako, erabiltzaileen profiei dagokienez, eta kostu txikia dutelako. Formatu digitalen irisgarritasuna bermatzeko, jarraibide zehatz batzuk bete behar dira. Hurrengo estekak horri buruzko informazio gehiago eskaintzen du: [Word eta PDF dokumentuen web-erabilerraztasuna](#), [BiblioGidak](#), [Madrilgo Unibertsitate Autonomoa \(UAM\)](#).

9.4 PIAUren aurkezpena

Planaren lanketa-proiektua aurkezteko eta zabaltzeko proposatutako jardueren ildotik ([6.5 epigrafea →](#)), azken dokumentuen aurkezpenak lehenago proposatutako komunikazio- eta marketin-proiektuaren parte izan beharko luke.

Jarduera honen helburua bikoitza da: batetik, datozen lau urteetan erakunde publikoan PIAUren bidez arautuko den irisgarritasun unibertsalaren estrategia zabaltzea, eta, bestetik, hainbat interes-talderen ekarpenak biltzen dituen lanaren azken emaitzak partekatzea, zeinak partaidetza-prozesuak ardatz hartuta egin baitira.

Beste aurkezpen eta komunikazio-ekintza batzuen kasuan bezala, aurkezpen horiek eskura dauden baliabideen arabera diseinatuko dira (teknikoak, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak), xede-publikoaren arabera eta une bakoitzean lortu nahi den helburuaren arabera. Horretarako, hainbat kanal, tresna, formatu eta abar erabil daitezke, eta horietan guztietan irisgarritasun-irizpideak bermatu behar dira.

Gutxienez, honako ekintza hauek egitea gomendatzen da:

- **Aurkezpen instituzionala:** PIAUren eta erronka nagusien berri ematea haren garapenean nolabait inplikaturik dauden eragile eta erakunde publikoei (adibidez, udal mailako PIAU aurkeztuz gero, probintziako aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren, Gobernu zentralaren eta abarren arloak, sailak, bulegoak eta abar izango lirateke). Aurkezpen honetan, gainera, egokia da sektore pribatua eta hirugarren sektorea egotea, beren ordezkari nagusien bitartez.

- **Jendaurreko aurkezpena:** modu osagarrian, aurkezpen publiko presentziala egingo da, esku hartzen duten eragile guztiak barne, eta herritarrei irekia. Saio hau online jarraitu ahal izatea gomendatzen da (*streaming* bidez), betiere erabilitako plataformek irisgarritasun-irizpideak badituzte (adibidez, azpitoluak) eta beste arlo batzuk ere kontuan hartuta, hala nola *zeinu-mintzairako interpreteak** izatea, indukzio magnetikoko begiztak egotea eta desgaitasun mota desberdinak dituzten pertsonentzat gordetako lehentasunezko eserlekuak egotea aurkezpen horiek egiteko aukeratutako eremuetan.


Horrez gain, eta bi kasuetan, aurkezpen horiei buruzko informazio guztia aldez aurretik zabaldu beharko da erakundeak erabili ohi dituen kanalen bidez (adibidez, web-atari ofiziala, blogak, buletinak, tokiko irratia- eta telebista-kateak, hiriko-karteldegia, etab.), ahalik eta zabalkunderik handiena ziurtatuz.

Era berean, bi aurkezpenak egin ondoren, emaitzen berri emango da, kanal berberen bidez.

PIAUren dokumentua eskuragarri egon behar da kontsultatzeko erakunde bakoitzak egokien deritzon kanalaren bidez; normalean, erakundearen web-ataria bera.

Euskadiko Irisgarritasun Behatokiaren web-atariak, nolahi ere, ekintza horiek eta egindako PIAUak ezagutarazteko gunea izan behar du.

10. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA



21. irudia Garatu beharreko faseen eskema orokorra. Jarraipena eta ebaluazioa

Plan guztiek aldizkako jarraipena eta ebaluazioa izan behar dute, zorroztasuna bermatuko duen metodologia baten bidez eta tresna egokiak erabiliz. Hau da, PIAUren ebaluazio- eta jarraipen-prozesu sistematizatuak bertan jasotako neurrien aurrerapena aztertuko du, eta egon daitezkeen desbideratzeak identifikatuko ditu.

Ebaluazio- eta jarraipen-prozesu hori planaren denbora-horizontearen arabera diseinatuko da. Lau urterako planetarako, jarraipenerako eta ebaluaziorako ibilbide-orri hau gomendatzen da:


- Urteko jarraipen-txostena (lehen urtetik laugarrenera).
- Tarteko ebaluazioaren txostena (2. urtearen amaiera – 3. urtearen hasiera).
- Azken ebaluazioaren txostena (4. urtearen amaiera – 5. urtearen hasiera).

Txostenek honako informazio hau jasoko dute.

- Erreferentziako aldiaren garatutako neurriak.
- Egoera eta gauzatzeko-maila.
- Inbertitutako baliabideak (teknikoak eta ekonomikoak).
- Planean jasotako eta garatu ez diren edo garapen partziala izan duten neurrien identifikazioa, eta horren azalpena.

Tarteko ebaluazioaren txostenak, gainera, hurrengo bi urteetan garatzeko gelditzen diren neurriak jasoko ditu.

Azken ebaluazioaren txostenak, berriz, ezarritako denbora-tartean (lau urte) gauzatzeko ardatzen, helburuen eta neurrien betetze-mailari buruzko ebaluazio integrala jasoko du, planaren jarraipena egiteko aginte-taula izeneko tresnan zehaztutako adierazleei jarraituz.



22. irudia Lau urterako planaren plangintzaren eta jarraipenaren adibidea

Dokumentuan adierazi bezala, Euskadiko Irisgarritasun Estrategiaren diagnostikoak erakusten du irisgarritasun unibertsalari buruzko informazioa oso heterogeneoa dela, sakabanatuta dagoela eta, askotan, eguneratu gabe.

Gai horretan aurrera egiteko, beharrezkoa da informazioa modu sistematikoan biltzea eta antolatzea, bai planei dagokiona, bai plana gauzatu ondoren lortutako emaitzei dagokiona.

Horretarako, Euskadiko erakunde publiko guztiei eskatzen zaie ISEKi bidaltzea bai PIAUren dokumentuak, behin idazketa amaitu ondoren, bai egindako urteko aurrerapenak, planaren aurrerapen-txostenaren bidez edo aginte-taularen beraren bidez, zein ekintza burutu diren eta zein dauden egiteke adierazita.

Dokumentuak posta elektronikoz bidal daitezke, "PIAU aurrerapenen berri + erakundearen izena" gaiarekin, helbide honetara: accesibilidad@euskadi.eus.

PIAU EGITEKO ETA AURKEZTEKO ZEHARKAKO GAIAK

Etengabeko parte-hartzea

PIAUren garapen-prozesuan gogoan izan behar da parte-hartzea etengabe kontuan hartu beharreko gaia dela. Dokumentu honetan jasotako proposamenen osagarri gisa, funtsezko eragileen parte-hartzea, baita herritar guztiena ere, kontuan hartu behar da, adibidez, PIAUren ardatz estrategikoak, helburuak eta jarduteko neurriak adosterakoan, garapenean zuzenean inplikaturik dauden arlo/sail/talde teknikoaren parte-hartzea bermatuz. Horrela, fase honetan ohikoa da kanpoko pertsonak, interes-taldeen ordezkariak (adibidez, adinekoak, desgaitasuna duten pertsonen elkarteak, enpresa-elkarteak, etab.) partaide egitea.

Pertsona guztientzat eskuragarri dagoen dokumentazioa

PIAUren proiektuaren parte-hartze eta zabalkunde egokia ziurtatzeko, formatu eskuragarriak erabili behar dira sortzen den dokumentazioan eta baita parte-hartzaileen, eragileen eta, oro har, herritarren eskura jartzea aurreikusten den dokumentazioan ere.

Horrela, PIAUren azken dokumentuen artean, laburpen exekutiboa gutxienez hainbat formatutan aurkeztea proposatzen da, *formatu alternatiboak** txertatuz (adibidez, irakurketa erraza*).

Era berean, ziurtatu behar da dokumentua formatu irisgarrian dagoela (adibidez, PDF irisgarria) eta irisgarritasun-irizpideak dituzten kanalen bidez hedatzen dela (adibidez, web-atari irisgarria).

I. eranskina. ANALISIA ETA DIAGNOSTIKOA ARDATZ ESTRATEGIKOEN ARABERA

Jarraian, Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Ekintza Planean zehazten diren ekintzak, adierazleak eta mugariak zerrendatzen dira; hala ere, analisi- eta diagnostiko-fasearen ondoren, erakunde bakoitzak bere errealitatearen, helburuen eta plangintzaren arabera zehaztu, zuzendu edo osatuko ditu.

Informazio hori [II. eranskina](#) → delakoarekin osatzen da. Bertan, jarduera-eremuen arabera antolatuta, eremu horien diagnostikoan identifika daitezkeen beste ekintza batzuk zehazten dira.

BEHARREZKO EGITURA.

*Zein egitura behar den ekintzak gauzatzeko.
OINARRIA da.*

- 1. Gobernantza: irisgarritasunaren kudeaketa.**
- 2. Eskubideak bermatzeko esparru juridikoa.**

BEHARREZKO ALDAKETAK

*Zein aldaketa egin behar diren azken
helburuetara iritsi ahal izateko. BIDEA dira.*

- 1. Erantzunkidetasuna eta baterako partaidetza.**
- 2. Irisgarritasunean trebatzea.**

IRISGARRITASUNA SUSTATZEA.

Nora iritsi nahi den, HELMUGA adierazten dute.

- 1. Irisgarritasuna sustatzea.**
- 2. Berrikuntzaren bidezko konponbidea.**

23. irudia Irisgarritasun Unibertsaleko Ekintza Planaren ardatzak



BEHARREZKO EGITURA

Zer egitura behar den azken helburuak lortzeko behar diren aldaketak egiteko, zer kudeaketa egon behar den, zer lidergo, zer funtzio, ekintzen zer jarraipen eta nola indartu behar den esparru juridikoa.

1. ARDATZA		GOBERNANTZA: IRISGARRITASUNAREN KUDEAKETA
ILDOA	E1.1	Lidergo instituzionala eta politikoa izatea eta PIAUren egitura arduraduna sortzea
IRADOKITAKO EKINTZAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Herritarrei eta erakundeko arloei laguntza eta aholkularitza emateko zerbitzua ▪ Erakundearen barruan administrazio-unitate espezifikoak sortzea edo irisgarritasunaren arloko arduradunak identifikatzea ▪ PIAU idaztea eta eguneratzea
ADIERAZLEAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Irisgarritasunari buruzko aholkularitza-zerbitzua izatea ▪ Erantzundako kontsulten kopurua, kontsultatutako gaiaren eta kontsulta nork egin duen kontuan hartuta ▪ PIAU izatea ▪ Identifikatutako arduradunen kopurua ▪ PIAUn aurreikusitako aurrekontua ▪ PIAUn gauzatutako aurrekontua
MUGARRIAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Irisgarritasunaren balio-katearen atal desberdinetan eskumenak dituzten erakundeko arlo desberdinen inbentarioa sortzea ▪ Urtero ISEKi PIAUren prestaketaren edo eguneratzearen eta gauzatutako aurrekontuko diru-horniduraren berri ematea ▪ Urtero ISEKi berariazko administrazio-unitateen sorreraren edo arduradunen izendapenaren berri ematea
ILDOA	E1.2	Irisgarritasunari buruzko informazioa eta ezagutza sortzea eta partekatzea
IRADOKITAKO EKINTZAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskadiko Irisgarritasunaren Behatokiarekin lankidetzan aritzea informazioa elikatzeke
ADIERAZLEAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Planetan jasotako jarraipen-adierazleen kopurua
MUGARRIAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Urtero ISEKi web-erabilerraztasunari buruzko txostenaren berri ematea

2. ARDATZA		ESKUBIDEAK BERMATZEKO ESPARRU JURIDIKOA
ILDOA	E2.1	Araudia berrikustea, kontzeptuak argitzeko eta jarduteko irizpide uniformeak ezartzeko
IRADOKITAKO EKINTZAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Lantaldeak abian jartzea, indarrean dagoen araudia, posizionamendua, interpretazio-irizpideak, hobetzeko iradokizunak aztertzeke ▪ Abian jarritako tresna, zerbitzu edo araudiek irisgarritasunaren arloan duten eraginaren azterketa
ADIERAZLEAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Sortutako lantaldeen kopurua ▪ Egindako saioren kopurua ▪ Parte-hartzaileen kopurua ▪ Egindako irisgarritasun-analisen kopurua
MUGARRIAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Jardun-eremua arautzen duen araudiaren inbentarioa, egindako

		aldaketak adierazita
		<ul style="list-style-type: none"> Tresnak, zerbitzuak edo araudia sortzean, horiek irisgarritasunaren arloan duten eragina aztertu beharko da Urtero ISEKi irisgarritasunaren arloan hautemandako gorabeheren eta arazoen berri ematea
ILDOA	E2.2	Araudia behar bezala interpretatzen eta aplikatzen lagunduko duten tresnak eta mekanismoak sortzea
IRADOKITAKO EKINTZAK		<ul style="list-style-type: none"> 1.1 ekintzan sortutako emaitza-txostenak igortzea eta zabaltzea Jarduera-eremu bakoitzean aplikatzekoa den araudiari buruzko laguntza-eskuliburuak egitea Erakundearen jarduera-esparruen balio-kateari buruzko gidak egitea
ADIERAZLEAK		<ul style="list-style-type: none"> Txosten, eskuliburu edo gida kopurua
MUGARRIAK		<ul style="list-style-type: none"> Erakundeak egindako txosten, eskuliburu edo giden berri ematea ISEKi, Euskadiko Irisgarritasunaren Behatokia sartu ahal izateko
ILDOA	E2.3	Irisgarritasun-araudia betetzeko figurak eta eskumenak sortzea
IRADOKITAKO EKINTZAK		<ul style="list-style-type: none"> Lizentziak eta baimenak ematean ikuskapen- eta kontrol-funtzioa indartzea. Beharrezko baliabideak neurtzea Eskumen-eremuari, arau-hausteei eta zehapen-araubideari buruzko txostena
ADIERAZLEAK		<ul style="list-style-type: none"> Txosten kopurua
MUGARRIAK		<ul style="list-style-type: none"> Lehenengo urtean eta aldaketak daudenean, ISEKi eskumen-eremuaren diagnostiko-txostenaren berri ematea Urtero ISEKi hautemandako gorabehereri, beharrei eta gabeziei, jatorriari, gestioei, esku hartzen duten organoei eta gorabeheraren emaitzari buruzko txostena helaraztea

Informazioa osatze aldera, dokumentu hau garatzeko sortutako lantaldeak Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Ekintza Planaren lehen ponentziaren esparruan identifikatu zituen ekintzak jasotzen dira. Lantalde horri buruzko informazio gehiago [VIII. eranskinean](#) → aurki daiteke.

Ildo horretan, irisgarritasuna sustatzeko estrategia ezartzea da gakoa (ekintza solte, unean-uneke eta loturarik gabekoei kontrajarrita).

- Irisgarritasun unibertsaleko plan integraletan jarraipen- eta ebaluazio-planak egitea.
- Irisgarritasun unibertsala zeharkakotasunez txertatzea erakunde publikoan dauden eragin-txostenetan, azterlanetan eta abarretan.
- Berrikuntza eta ezagutzaren kudeaketa sustatzea irisgarritasun unibertsalaren arloan.
- Irisgarritasun unibertsalaren arloko arau-esparrua garatzea eta eguneratzea.



BEHARREZKO ALDAKETAK

Zer aldaketa egin behar diren pertsonengan, erakunde publiko eta pribatuetan, jarreretan, balioetan, ikuspegian, gaikuntzan, ingurune irisgarria eraikitzeke eta azken helburuetara iristeko.

3. ARDATZA		ERANTZUNKIDETASUNA ETA PARTAIDETZA
ILDOA	A1.1	Gizarte osoarekin irisgarritasunaren balioak partekatzea
IRADOKITAKO EKINTZAK		<ul style="list-style-type: none"> Irisingarritasun-eredu berria eraikitzeke prozesuari buruzko ekitaldiak eta zabalkunde-kanpainak antolatzea Irisingarritasun unibertsaleko irizpideak behatzea ekitaldien, argitalpenen eta publizitate-kanpainen antolaketan
ADIERAZLEAK		<ul style="list-style-type: none"> Jardunaldi, kanpaina eta ekitaldien kopurua Parte hartu duten eragileen kopurua
MUGARRIAK		<ul style="list-style-type: none"> Irisingarritasun unibertsaleko irizpideak txertatzea ekitaldi, jardunaldi edo argitalpen guztietan
ILDOA	A1.2	Erakundeak erantzukide egitea irisingarritasun unibertsalaren balioetan
IRADOKITAKO EKINTZAK		<ul style="list-style-type: none"> Irisingarritasunerako Eskubideen Gutunari eta Irisingarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiari atxikitzeke gutun espezifikoak sinatzea
ADIERAZLEAK		<ul style="list-style-type: none"> Egindako atxikimendua
MUGARRIAK		<ul style="list-style-type: none"> Erakunde gisa atxikimendua gauzatzea
ILDOA	A1.3	Kontsulta publikoko eta partaidetzako ekimenak bultzatzea
IRADOKITAKO EKINTZAK		<ul style="list-style-type: none"> Eztabaida-guneak, ponentzia espezializatuak eta adituen topaketak antolatzea eta horietan parte hartzea Arauek, planak, estrategiak eta lizitazioak sortzeke edo berrikusteko prozesu guztietan irisingarritasuna txertatzea
ADIERAZLEAK		<ul style="list-style-type: none"> Parte hartzeke topaketen kopurua Parte hartzen duten erakundeen kopurua Irisingarritasun unibertsalaren ikuspegitik egindako arau, plan, estrategia edo lizitazioen kopurua
MUGARRIAK		<ul style="list-style-type: none"> Gutxienez topaketa bat urtean 20.000 biztanletik gorako udalerrietan Partaidetza-prozesuak irekitzea PIAUen idazketan, ebaluazioan edo jarraipenean

4. ARDATZA		IRISGARRITASUNEAN TREBATZEA
ILDOA	A2.1	Hezkuntza-zikloetan irisingarritasunean trebatzea
IRADOKITAKO EKINTZAK		<ul style="list-style-type: none"> Irisingarritasun unibertsala txertatzea eremu horretan eragina duen edozein heziketa-ziklotan Horretarako eskumena duten erakundeentzat, irisingarritasun unibertsalaren arloko lanbide-profila definitzea
ADIERAZLEAK		<ul style="list-style-type: none"> Antolatutako jardunaldien kopurua Parte-hartzaileen kopurua

MUGARRIAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Definitutako profesionaltasun-profilen kopurua ▪ Irisgarritasun unibertsalari buruzko erreferentziak prestakuntza-programa guztietan ▪ Irisgarritasun unibertsaleko lanbide-profila definitzea
ILDOA	A2.2	Irisgarritasun unibertsalean profesionalak gaitzea
IRADOKITAKO EKINTZAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Erakundeko eta erakundetik kanpoko profesionalen etengabeko prestakuntzako jarduerak antolatu, diseinatu eta ezartzea ▪ Material didaktikoa zabaltzea
ADIERAZLEAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikastaroen kopurua ▪ Parte-hartzaileen kopurua
MUGARRIAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Funtsezko eremu guztietan berariazko prestakuntza duten profesionalak izatea
ILDOA	A2.3	Irisgarritasun unibertsalaren arloan pertsonak duten ezagutza eta esperientzia formalki aitortzea
IRADOKITAKO EKINTZAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Horretarako eskumena duten erakundeek, Profesionaltasun Ziurtagiriak eta Gaitasun Unitateak egokitzea irisgarritasun unibertsala sustatzeko
ADIERAZLEAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Eskuratutako akreditazioen kopurua
MUGARRIAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Irisgarritasunari buruzko berariazko prestakuntza aitortzea

Bereziki aipatzekoak dira plan estrategikoen esparruko **prestakuntza- eta kontzientziazio-ekintzak**, zeharkakoak direlako, denboran zehar modu iraunkorrean ezarri behar direlako eta inpaktua dutelako. Gainera, ezinbestekoa da ekintza horiek jasota geratzea irisgarritasun unibertsaleko edozein estrategiatan, bai udalerrri, enpresa edo erakunde publikoenak izan.

Prestakuntza, pertsona bat edo pertsona-taldea lan-testuinguruan esleitutako zereginak hobeto betetzeko profesionalki trebatzera bideratutako ekintza gisa ulertu behar da.

Bestalde, kontzientziazioak kontzientzia sortzeko balio du, kasu honetan ingurune, produktu, ondasun eta zerbitzu irisgarriak izatearen garrantziari buruz. Beraz, kontzientziazio-ekintzen xedea da horiek jasotzen dituzten pertsona guztiek gaiari buruzko kontzientzia handiagoa izatea.

Bizi dugun testuinguruak profesional guztien prestakuntza etengabe eguneratzeaz gain, eragile pribatu eta sozial guztien inplikazio handiagoa eskatzen du lurraldeen eta erakundeen plangintza estrategikoan, eta beharrezkoa da prestakuntza- eta kontzientziazio-ekintza iraunkorrak txertatzea, eta ez aldizkakoak.

Hona hemen ildo horretako ekintzen adibide batzuk:

- **Prestakuntza:**

- Irisgarritasun unibertsala zeharkako gai gisa txertatzea langile publikoei zuzendutako urteko prestakuntza-planetan.
- Eragile pribatuentzako sektorekako eta berariazko prestakuntza garatzea (adibidez, kultura-erakundeak, ostalaritza eta turismoa, IKT tresnak, etab.).

o Irisgarritasun unibertsalaren gaia hezkuntza-erakundeetan txertatzea, lehen hezkuntzatik hasita.

• **Kontzientziazioa:**

- o Herritarrak kontzientziatzeko urteko jardunaldiak egitea.
- o Sektorekako kontzientziazio-ekintzak garatzea (adibidez, garraioaren arloan, saltokiak, ostalaritza, turismo-baliabideak, etab.).
- o Kontzientziazio-plan integrala langile publikoentzat, kargu politiko zein teknikoentzat.

IRISGARRITASUNA SUSTATZEA



Izaera dinamikoa duten ekintzak inplementatu behar dira, jarraitzeko asmoa dutenak, eta eredu berri bat, harremanak izateko modu berri bat bultzatuko dutenak, irtenbide zehatzen bidez, erronka berrietara egokitu daitezkeenak eta berrikuntza teknologiko eta sozialaren laguntzarekin.

5. ARDATZA		IRISGARRITASUNA SUSTATZEA
ILDOA	S1.1	Administrazioen eta herritarren arteko harreman-eredu irisgarria sustatzea
IRADOKITAKO EKINTZAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Irisgarritasuna bultzatzea herritarren eta erakundearen arteko elkarreragineko eremu guztietan (aurrez aurreko arreta, arreta digitala, telefono bidezkoa, informazioa) ▪ Herritarrekiko harremanetarako bideen jarduera-protokoloak ezartzea
ADIERAZLEAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Erabilitako arreta-zerbitzuen eta harremanetarako bideen kopurua
MUGARRIAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Irisgarritasun unibertsala herritarren eta erakundearen arteko komunikazio-kanal guztietan
ILDOA	S1.2	Planaren eremu guztietan irisgarritasuna bermatzea
IRADOKITAKO EKINTZAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Erakundeak jarduten duen esparruetako irisgarritasun-katearen diagnostikoa egitea, PIAUn islatzeko ▪ Diagnostikoaren emaitza beharrak eta gabeziak hautemateko sistemek jasotako informazioarekin koordinatzea (1.1 ildoak)
ADIERAZLEAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Egindako diagnostikoen kopurua
MUGARRIAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Irisgarritasun-katearen diagnostikoak etengabe eguneratzea ahalbidetuko duten sistemak izatea
ILDOA	S1.3	Irisgarritasuna sustatzeko ekintzak finantzatzea
IRADOKITAKO EKINTZAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Aurrekontu-erreserba bermatzea, PIAUn aurreikusitako ekintzak gauzatzeko ▪ Irisgarritasuna sustatzeko proiektuetarako finantzaketa bultzatzea (diru-laguntzen lerroak, I+G+b proiektuak, Hirugarren Sektore Sozialari laguntzea)
ADIERAZLEAK		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Esleitutako aurrekontuaren bolumena ▪ Sortutako finantzaketa-lerroen kopurua ▪ Sortutako lerroen aurrekontu-bolumena ▪ Erakunde onuradunen kopurua

MUGARRIAK	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Aurrekontu-erabilgarritasuna bermatzea PIAUak gauzatzeko ▪ Erakunde pribatuetatik eta pribatuetara bideratutako finantzaketa-lerroen bidez irisgarritasuna sustatzea
ILDOA	S1.4 Parte-hartze politikoa bermatzea
IRADOKITAKO EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Hauteskunde-prozesuetan irisgarritasun unibertsala bermatzea
ADIERAZLEAK	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Hautesleku irisgarrien kopurua ▪ Hauteskunde-programetan irisgarriak diren formatuen kopurua
MUGARRIAK	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Erabateko irisgarritasuna hauteskunde-prozesuetan

6. ARDATZA	BERRIKUNTZAREN BIDEZKO IRTENBIDEAK	
ILDOA	F2.1	Gizarte- eta enpresa-sare sendo bat sortzen laguntzea, irisgarritasunerako irtenbide teknologikoak emango dituenak
IRADOKITAKO EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Irisgarritasun unibertsala txertatzea balorazio-irizpideetan, enpresak, produktuak edo zerbitzuak finantzatzean edo mentorizatzean ▪ Oinarri teknologikoa duten zerbitzuak eta produktuak garatzeko lerro espezifikoak bultzatzea ▪ Teknologian, berrikuntzan eta gizarteratzean adituak diren eragileen artean berrikuntza-espazioak diseinatzea eta sortzea ▪ Arlo guztietan autonomia pertsonala hobetzerako bideratutako berrikuntza eta teknologia sustatzea 	
ADIERAZLEAK	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikerketara eta berrikuntzara bideratutako aurrekontua ▪ Enpresa, produktu edo zerbitzu onuradunen kopurua ▪ Gizarte-berrikuntzako gune irekien kopurua ▪ Garatutako lankidetzak-hitzarmen, jarduera eta proiektuen kopurua 	
MUGARRIAK	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskal Autonomia Erkidegoan abian jarritako programak identifikatzea 	
ILDOA	F2.2	Gizarte-berrikuntzaren bidez, laguntza- eta arreta-ereduak bultzatzea
IRADOKITAKO EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Pertsonen arreta emateko gizarte-berrikuntzako programak bultzatzea 	
ADIERAZLEAK	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Programa-kopurua ▪ Bideratutako aurrekontua 	
MUGARRIAK	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskal Autonomia Erkidegoan abian jarritako programak identifikatzea 	
ILDOA	F2.3	Formula alternatiboaren bidez, gatazkak prebenitzea eta konpontzea
IRADOKITAKO EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gatazkak konpontzeko dauden mekanismoak identifikatzea, gabeziak hautematea eta irisgarritasuna hobetzeko proposamenak egitea ▪ Horretarako eskumena duten erakundeentzat, gatazkak ebazteko prozedura alternatiboetan espezializatutako taldeak prestatu eta egiaztatzea 	
ADIERAZLEAK	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Erakundeko profesional espezializatuen kopurua ▪ Espezializatorako prestakuntza-saioren kopurua ▪ Sistema horiek hedatzeko kanpainen kopurua ▪ Kanal horiek esku hartutako gatazken kopurua 	
MUGARRIAK	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskal Autonomia Erkidegoan abian jarritako mekanismoak identifikatzea 	

II. eranskina. ANALISIA ETA DIAGNOSTIKOA JARDUERA-EREMUEN ARABERA

Jarraian, jarduera-eremuaren arabera antolatutako ekintzen zerrenda jasotzen da, baina, analisi- eta diagnostiko-fasearen ondoren, erakunde bakoitzak bere errealitatearen, helburuen eta plangintzaren arabera zehaztu, zuzendu edo osatuko ditu.

Informazioa osatzealdera, dokumentu hau garatzeko sortutako lantaldeak Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Ekintza Planaren lehen ponentziaren esparruan identifikatu zituen ekintzak jasotzen dira. Lantalde horri buruzko informazio gehiago [VIII. eranskinean](#) → aurki daiteke.



24. irudia PIAUren esparruan jarduteko eremuak

Analisiaren eta diagnostikoaren landa-lana sistematizatzeko eta antolatzeko, aztertu beharreko elementuak modu eskematiko eta ordenatuan bilduko dituzten fitxak egin daitezke. Horretarako, gomendagarria izango da a priori dokumentu osorako mantenduko den kodifikazio- eta sinbologia-sistema ezartzea. [IV. eranskina](#) → izenekoak hainbat dokumentu biltzen ditu, gidak eta dekalogoak, eremu desberdinak aztertzeko fitxen adibideekin.

Elementuen fitxa horiek honako eduki hau izan dezakete, PIAU egiteko fasearen arabera:

DATUAK BILTZEKO FITXAK		
KODIFIKAZIOA	ERAKUNDEAREN IDENTIFIKAZIOA DAGOKION PLANAREN EREMUA AZTERTUTAKO ELEMENTUAREN IDENTIFIKAZIOA/KOKAPENA	
EGUNGO EGOERAREN DOKUMENTAZIO GRAFIKOA (argazkiak, krokisak, planoak)	ARAUZKO ESKAKIZUNAK ARAUDIA BETETZEA MANTENTZE-LAN EGOKIAK BABES-MAILA (historikoa, kulturala, ingurumenekoa...) BESTE ELEMENTU EDO ESPARRU BATZUEKIKO INPLIKAZIOA	
OHARRAK		
BISITAREN DATA		BISITAREN ARDURADUNA
DIAGNOSTIKORAKO FITXAK		
Datu-bilketari buruzko informazio gehigarria		
DOKUMENTAZIO GRAFIKOA (argazkiak, krokisak, planoak, simulazioa)	JARDUERA-PROPOSAMENA	Ohikoa Singularra Berezia
	ELEMENTUAREN EGOERA	Mantentze-lana Berritzeko beharra Eraldatuta
DESKRIBAPENA	DIAGNOSTIKOA	Irigarria Erabilgarria Moldagarria Ezin da egokitu
	LOTUTAKO ARDATZ ESTRATEGIKOA ILDO ESTRATEGIKOAREN IDENTIFIKAZIOA	
OHARRAK		
AZTERKETAREN DATA		AZTERKETAREN ARDURADUNA
JARDUERA-PLANAREN FITXAK		
Datu-bilketari eta diagnostikoari buruzko informazio gehigarria		
EKINTZA	EKINTZAREN LEHENTASUNA	Estrategikoa Lehentasan handikoa Etengabeko hobekuntzakoa Hobekuntza azkarrekoa
	BALORAZIOA	Neurketa-adierazlea Zenbatetsitako unitate-prezioak Aurreikusitako aurrekontua
	EZARPEN-ETAPA	(zenbatetsitako etapen arabera)
OHARRAK		
AZTERKETAREN DATA		AZTERKETAREN ARDURADUNA

Adibideak bakoitzari dagokion jardun-eremuaren arabera antolatzen dira, kontuan hartuta horietako batzuk beste jarduera-eremu batzuetara estropolatu daitezkeela.

Ekintzak identifikatzeko, garrantzitsua da planaren buru den erakunde publikoaren eskumenak kontuan hartzea, bai udalerriak badira, bai beste administrazio edo erakunde batzuk badira.

Plan batek jasotzen dituen ekintzak propioak izango dira eta erakunde publiko bakoitzarentzat "pertsonalizatuta" egongo dira, eta egindako azterketatik eta, beraz, identifikatutako erronka eta indarguneetatik eratorriko dira.

- A. Hiri-ingurunea eta espazio publikoak
- B. Eraikitako ingurunea
- C. Garraioa
- D. Jendearen eskura dauden produktuak eta zerbitzuak
- E. Laguntza-sistemak
- F. Osasuna
- G. Hezkuntza
- H. Kultura, kirola, aisialdia eta turismoa
- I. Babes zibila

A. Hiri-ingurunea eta espazio publikoak

[Euskal Autonomia Erkidegoan irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen](#) 1. kapituluko (irisgarritasunari buruzko xedapen orokorrak) 3. artikuluan jasotakoaren arabera, hiri-inguruneak eta espazio publikoek barne hartzen dituzte bide publikoak, parkeak eta plazak, ekipamendu komunitarioak, zerbitzu publikoen instalazioak eta hiriko altzariak.

Lege horren II. eranskinak, bere 1. artikuluan, hiri-ingurunekeo irisgarritasunari buruzko baldintza teknikoak arautzen ditu, zehazki espazio publikoetakoak eta ekipamendu komunitarioetakoak, bai eta urbanizazio-elementuak eta hiri-altzariak ere, bigarren taulan zehazten direnak.

Horrez gain, arau horrek adierazten du Euskal Autonomia Erkidegoko ondare historiko-artistikoa pixkanaka egokituko dela lege honek ezarritako irisgarritasun-irizpideetara. Hala, ingurune horretan jarduketa bat egiteko orduan, kontuan hartu behar da [Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea](#), babestutako kultura-ondasun higiezinaren edo monumentu-multzoen ingurunearen garrantziari eta bertan jasotako elementuei dagokienez, ondasunaren kultura-balioetan izan dezakeen eraginari eta balioa emateari lotuta. Era berean, beharrezkoa izango da legean bertan eta hirigintza-plangintzan horien gainean ezar daitezkeen mugak aztertzea, eta, horrez gain, kasuan kasuko foru-aldundiak muga horiek jakinarazi edo baimendu beharko ditu.

Hurrengo koadroan, Jarduera Planean sartu beharreko ekintzak zehazteko orduan kontuan hartu beharreko hiri-ingurune elementuak eta espazio publikoak identifikatzen dira:

Taldeak	Elementuak
Hirigintza-elementuak	<ul style="list-style-type: none"> • Oinezkoentzako ibilbideak • Zoladurak • Ibilgailuen ibia • Oinezkoen pasabideak • Parkeak, lorategiak, plazak eta aire libreko espazio publikoak • Eskailerak • Arrapalak • Eskailera mekanikoak, tapiz gurpildunak eta igogailuak • Eskubandak • Aparkalekuak • Komun publikoak
Hiriko altzariak	<ul style="list-style-type: none"> • Semaforoak • Telefonoak • Salmenta-makinak • Edukiontzien, paperontzien eta antzeko elementuen ahoak • Iturriak eta isurbideak • Bankuak • Trabagarriak • Informazio-puntuak • Autobusen geltokia, markesinak • Erakusmahaiak eta leihatilak • Jolas- edo gimnasia-eremuak • Edukiontziak
Behin-behineko elementuen babesa eta seinaleztapena	<ul style="list-style-type: none"> • Obrei lotutakoak • Garaian garaiko edo aldi baterako jarduerak

Gainera, eremu horretan aplikatu daitezkeen hainbat ekintza identifikatu dira.

- Teknikariei, proiektugileei eta gainbegiraleei prestakuntza ematea.
- Irisgarritasun unibertsala bermatzea obra berri guztietan.
- Egungo egoera aztertzea eta lehentasun-plana egitea: ekintzekin eta aurrekontu zehatzarekin.
- Haur-parkeak ebaluatzea. Eremu irisgarriak izan ditzaten, baina gainerako eremuekin osatuz. Elementu, gune eta jolas inklusiboen gutxieneko ehunekoa bermatzea.
- Mugikortasun urriko pertsonentzat gordetako aparkalekuen erabileraren kontrola handitzea (adibidez, gainazalean daudenak; lurpean; hiri-bidean; eraikin publikoetako partzeletan).

- Udal-plangintza: obren plangintzatik irisgarritasun unibertsala kontuan har dadin sustatzea, jarraibide argien bidez.
- Obra berrietan irisgarritasun unibertsalean espezializatutako teknikari batek parte hartzeko betebeharrak sortzea, plegu teknikoak idaztetik zerbitzua betetzen den arte.

B. Eraikitako ingurunea (eraikinak)

[Euskal Autonomia Erkidegoan Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen](#) III. eranskinak titulartasun publiko edo pribatuko eraikinen irisgarritasun-baldintza teknikoak arautzen ditu.

Hurrengo koadroan, Jarduera Planean sartu beharreko ekintzak zehazteko orduan kontuan hartu beharreko ingurune eraikiko elementuak identifikatzen dira:

Taldeak	Elementuak
Eraikinenetarako sarbidea	<ul style="list-style-type: none"> • Kanpoko sarbide-ateak • Sarbideko kontrol-sistemak • Atariak • Informazioa eta seinaleak • Jendearentzako arreta
Barne-komunikazio horizontala eta bertikala	<ul style="list-style-type: none"> • Korridoreak • Ateak • Leihoak • Eskailerak • Arrapalak • Eskubandak • Igogailuak • Beste elementu mekaniko batzuk • Informazioa eta seinaleak
Bulegoak	<ul style="list-style-type: none"> • Jendeari arreta emateko eremuak • Jendearentzat zabalik dauden aretoak • Garbiketa-zerbitzuak • Etxebizitza • Erreserbatutako elementuak • Aparkaleku-garajeak
Altzariak	<ul style="list-style-type: none"> • Erakusmahaiak eta leihatilak • Salmentak-makinak (jendearen eskura dauden produktuak eta zerbitzuak aztertzeari lotutakoak) • Telefonoak • Eragingailuak eta alarmak • Aldi baterako instalazioak

Gainera, eremu horretan aplikatu daitezkeen hainbat ekintza identifikatu dira.

Etxebizitza sustapena eta kudeaketa

- Proiektuak idazten dituzten teknikariei eta teknikari gainbegiraleei prestakuntza ematea.
- Etxebizitza pribatuak egokitzeko diru-laguntzak eta aholkularitza eskaintzea.
- Alokairu publikoko etxebizitza sozial irisgarria eta premia desberdinetara egokitua sustatzea: *irisgarritasun fisikoa, sentsoriala eta kognitiboa**.
- Auzoan autonomia sustatuko duten etxebizitza-proiektuak planifikatzea, egoitzen alternatiba gisa (adinekoentzat, desgaitasuna duten pertsonentzat).
- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Zuzendaritzarekin akordioak egitea.

Eraikuntza publikoa

- Eraikuntza publikoari eta haren irisgarritasunari buruzko egungo egoeraren azterketa (diagnostikoa) eta lehentasunen plana, dagokion diru-hornidurarekin.
- Informazio hori publikoa izatea.
- Herritarrekiko komunikazio- eta informazio-kanalak:
 - Egindako informazio-eskaerei edo kexei erantzutea.
 - Irisgarritasunari buruzko salaketak: udalean gune bat identifikatzea salaketa horiek bideratzeko eta gune horren zabalkundea egitea, jendeak ezagutu dezan.
- Tokiko administrazio publikoan irisgarritasun unibertsalaren arduraduna izateko betebeharra legez ezartzea. (Gaur egun, URA ekimena –Irisgarritasuna Berrikusteko Unitatea– dago esparru teknologikoan).
- Irisgarritasun unibertsalari buruzko sektorekako araudia biltzea eta harekin dokumentu bat egitea, udalera ekarri ahal izateko.
- Irisgarritasun unibertsaleko etiketa sortzea.

C. Garraioa

[Garraioan irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen uztailaren 10eko 126/2001 Dekretuak](#) garraioko irisgarritasun-arau teknikoak arautzen ditu, [Euskal Autonomia Erkidegoan Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen 5. artikuluekin](#) bat etorritik.

Hala, berariaz jasoko dira garraio-azpiegituren eta errepideko eta trenbideko garraio publikoan erabiltzen den material mugikorraren inguruko irisgarritasun-baldintzak, bai eta garraio pribatuari buruzko baldintzak ere. Gainera, irisgarritasun-baldintzak kontrolatu eta egokitzapenak egiteko zenbait alderdi ere arautzen dira.

Hurrengo koadroan, Jarduera Planean sartu beharreko ekintzak zehazteko orduan kontuan hartu beharreko garraio-elementuak identifikatzen dira:

Taldeak	Elementuak
Azpiegiturak	<ul style="list-style-type: none"> • Geltokiak (eraikitako ingurunearen azterketari lotuak) • Markesinak, geltokiak eta geralekuak (hiri-ingurunearen eta eraikitakoaren azterketari lotuak)
Material mugikorra	<ul style="list-style-type: none"> • Hiriko autobusak • Hiriarteko autobusak • Trenbidea • Taxiak
Garraio pribatua	<ul style="list-style-type: none"> • Aparkalekuak • Aparkatzeko txartelak • Alokairu-zerbitzuak

Gainera, eremu horretan aplikatu daitezkeen hainbat ekintza identifikatu dira.

- Herri batek, biztanle-kopuruaren arabera, zer garraio-bide eta azpiegitura elkartu dituen eta behar dituen jakitea (adibidez, hiri-autobusa), eta horien irisgarritasuna bermatzea.
- Garraio-kate osoak garraio eta irisgarritasun Legea betetzen duela ziurtatzea.
- Markesinetan: informazio eguneratua, *formatu alternatiboetan** eta ulerterraza (adibidez, igarotze-maiztasuna, geralekuko autobusak).
- Taxi egokituak: lizentzia aktiboaren kopurua ezagutzea guztizkoaren gainean (taxi irisgarrien ehunekoa). Horiek egotea sustatzea (adibidez, diru-laguntzen eta onura fiskalen bidez). Taxi gidariari eta erabiltzaileari bonoak eskaintzea.
- Patineteei, bizikletei eta abarri buruzko udal-ordenantzak ezagutzea, bai eta modu aktiboan eta bide publikoen diseinu egokiaren bidez pertsona kalteberen babes eta segurtasuna lortzea ere.

D. Jendearen eskura dauden produktuak eta zerbitzuak

Produktu eta zerbitzuen irisgarritasun-baldintzei buruzko [Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko apirilaren 17ko 2019/882 \(EB\) Zuzentarauaren](#) transposizioaren helburua da honako produktu eta zerbitzu hauen irisgarritasun unibertsalaren betekizunak ezartzea. Zuzentarau hori oinarritzat hartuta, honako elementu hauek identifikatu dira:

Taldeak	Elementuak
Produktuak	<ul style="list-style-type: none"> • Erabilera orokorreko ekipo informatikoak • Laguntza-produktuak • Autozerbitzuko terminalak (ordainketa-terminalak, kutxazain automatikoak, billeteak banatzeko makinak, salmenta- edo informazio-makinak, txandak kudeatzeko sistemak, irakurgailu elektronikoak)
Zerbitzuak	<ul style="list-style-type: none"> • Erakundea eta herritarren arteko komunikazio elektronikoak • Aurrez aurreko, urruneko edo online arreta-guneak • Merkataritza elektronikoa • Web atariak • Informazio-sistemak • Sare sozialak • Arreta pertsonalizatua • Eskariaren araberako laguntza teknikoa (gurpildun aukiak, audio gidak...)

Gainera, eremu horretan aplikatu daitezkeen hainbat ekintza identifikatu dira.

Kanal anitzeko herritarrentzako arreta

- Informazioa erraz eta hizkuntza errazean helaraztea.
- Erabilgarri dauden kanalak ezagutzea:
 - 010
 - Iradokizunen postontzia. Irisgarritasunari buruzko udal-postontzia izatea, kexak eta proposamenak jasotzeko.
 - Posta elektronikoa
 - Berehalako mezularitza-sistemak (adibidez, Whatsapp)
 - Web atariak (aztarna elektronikoa, Bak, BakQ, posta elektronikoa, webgunean gaitutako berariazko atala...).
- Kanal horien bidez egindako kontsultei erantzun behar zaie.
- Herritarrek arreta jasotzeko zer kanal behar dituzten jakitea.
- Arlo horietako langileak prestatzea irisgarritasun-eskakizunak dituzten pertsonen arreta emateko.
- Material irisgariak: dokumentuak, idazkiak, formularioak, etab. hizkuntza errazean (adibidez, *irakurketa errazean** eskuragarri egotea; *makro karakterrak**; dokumentu digital irisgariak; testu- eta audio-formatuak).
- Bulego fisikoak: oztopo fisikoak, sentsozialak, komunikaziokoak, kognitiboak ezabatzea. *Zeinu-mintzairaren** bidezko arreta bermatzea.

E. Laguntza-sistemak

Batzuetan, funtzionaltasuna eta komunikazioa errazten duten laguntza edo zerbitzu osagarriak ere erabili behar dira, hala nola produktu- eta teknologia-euskarriak, zerbitzu edo tratamendu espezializatuak edo beste zerbitzu pertsonal batzuk, pertsonen edo animalien laguntza barne hartzen dutenak.

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina aldatzen duen [martxoaren 31ko 6/2022 Legean](#) ezarritakoa oinarri hartuta, honako elementu hauek identifika daitezke:

Elementuak
<ul style="list-style-type: none">• Sistema handigarriak eta alternatiboak*• Piktogramak*• Sarbide errazeko multimedia-gailuak*• Ahozko komunikazioa laguntzeko sistemak*• Zeinu-mintzairara itzultzeko sistemak*• Ukimen-komunikazioko sistemak* (makro karakterrak, goi-erliebea, Braille)• Orientatzen laguntzen duten sistemak (seinaleztapen-zerrendak, norabide-zerrenda, orientazio-plakak, balizak)• Ukimenezko eta soinu-zuko ikus-seinaleztapena (hiri-ingurunearen, eraikitako ingurunearen eta zerbitzu-ingurunearen azterketarekin lotuta)• Ohiko laguntza-produktuen eskuragarritasuna• Argiztapena indartzea• Txakur gidariak• Irisgarritasun unibertsalari buruzko berariazko prestakuntza

F. Osasuna

Oro har, oinarriko zerbitzu publiko horietarako mugikortasuna eta sarbidea hobetzea proposatzen da, bai eta osasun-ekipamenduetarako eta -instalazioetarako ere.

- Herritarrentzako kanal anitzeko arreta (adibidez, aurrez aurreko arreta, urrunekoa eta online bidezkoa bermatuz; audio eta bideo bidezko arreta-kanal alternatiboak gehituz; [hizkuntza erraza](#) erabiliz).
- Hitzorduak eta pazienteei laguntza. Irisgarritasun-eskakizunak dituzten pazienteei laguntzeko protokoloak egitea (adibidez, hizkuntza errazeko dokumentazioa, formatu irisgarriak eta *komunikazio-sistema alternatiboak* eta handigarriak* erabiliz, hala nola piktogramak).
- Dokumentazioa informatizatzea ez da informazioa irisgarria izatearen sinonimoa; horretarako, kanalen, tresnen, formatuen eta edukien irisgarritasuna bermatu behar da (adibidez, [web atari irisgarriak](#); [Word eta PDF dokumentu irisgarriak](#)).

G. Hezkuntza

- Ikastetxeetarako sarbideak hobetzea (adibidez, elementu fisikoak, hala nola arrapalak eta eskailerak; seinaleak).
- Ikastetxeetan irisgarritasunaren eguna ospatzea, kontzientziazioa eta sentsibilizazioa sustatzeko.
- Udalaren eskumena da eraikin publikoak mantentzea. Egoera txarrean dauden irisgarritasun-elementuak identifikatu behar dira, eta arduradunei jakinarazi. Gai horri buruzko protokoloak abian jartzea, prestakuntza ematea eta txostenak egitea gomendatzen da (adibidez, ezabatuta edo zikina dagoen *braille** seinaletika, egoera txarrean dagoen norabide-seinaletika korridoretan, piktogramak egotea eta horien egoera, etab.).
- Eskolei dagokienez: eskolara sartzeko ibilbide seguruak indartzea, "Eskola-bideak". Irisgarritasuna eta segurtasuna bateratzea. Autoekin tirabirak saihestea. Hobeto seinaleztatzea.

H. Kultura-, kirol-, aisialdi- eta turismo-jarduerak eta -instalazioak

- Irisgarritasunari buruzko informazioa ematea: jarduera non egiten den, irisgarritasun-irizpideak kontuan hartzen diren eta hala bada zeintzuk, lekura iristeko seinaletika eta tokian bertan dagoena ebaluatzea, iristeko zer garraio-bide behar den aztertzea eta espazioa nolakoa den identifikatzea, eskainitako edukia osatzen duten argazkiak txertatzea (adibidez, garraioa, sarbideak, komunak, espazioak, etab.).
- Antolatzen diren ekitaldien komunikazioaren irisgarritasuna lantzea (adibidez, *zeinu-mintzaira** txertatuz, azpтитuluak, erraz ulertzeko informazioa erabiliz; ekitaldia egin aurretik espazioari eta ekitaldiari buruzko informazioa emanez).
- Eremu horietan irisgarritasuna sustatzeko jarduerak egitea.
- Turismo inklusiboa eta irisgarria, segregazioa saihesteko. Irisgarritasun unibertsaleko planek horrelako baliabideak eta esperientziak bildu behar dituzte, eta turismo-planek irisgarritasun unibertsala txertatu behar dute (adibidez, turismo-baliabideen azterketa, esperientzia inklusiboen garapena, turismo-eragileen prestakuntza eta sentsibilizazioa).
- Turismo-baliabideetan -ondarezkoak, historiko-kulturalak, naturalak eta abar-formatu irisgarriak sartzea (adibidez, informazioa audio, bideo eta testu formatuan eskuratzeko QR kodeak, *zeinu-mintzairako** bideoak; *braille** seinaletika; informazioa [*irakurketa errazean**](#), eta abar).
- Kirol-, kultura- eta aisialdi-jardueretan segregazioa saihesteko prestakuntza (adibidez, esperientzia inklusiboak garatzea; teknologiak erabiltzea).

I. Babes zibila

- Larrialdi-protokolo inklusiboak garatzea, hau da, pertsona guztientzat pentsatutakoak, baita irisgarritasun-eskakizunak dituzten pertsonentzat ere.
- Larrialdietako ibilgailuetan (anbulantziak, polizia-autoak, suhiltzaileen kamioiak) lan egingo duten pertsonen prestakuntza ematea.
- Larrialdietarako kanalen irisgarritasuna, bereziki 112koa. Larrialdi-kanal guztiei buruzko informazioa ezagutzea eta zabaltzea.
- Kontuan izatea Babes Zibileko boluntarioen ekintzak udaletako Herritarren Segurtasunerako Arloaren mende daudela (udalaren eskumena). Babes zibileko taldeak osa daitezke, desgaitasuna duten pertsonak ere boluntario gisa hartuta.

J. Gizarte-zerbitzuak

- Herritarren arreta:
 - Pertsona guztientzako eskuragarri dauden oinarrizko gizarte-arretako unitateak egotea:
 - Fisikoa*
 - Sentsoriala*
 - Kognitiboa*
 - Administrazioen arteko elkarreragingarritasuna sustatzea: administrazio publikoek ahalmena dute herritarren datuak beste arlo batzuetan kontsultatzeko, herritarrari izapideak, bikoiztasunak, atzerapenak eta abar saihestuz.
 - Administrazio-izapideak egiteko eta dokumentazioa entregatzeko aholkularia izatea.
- Gizarte Zerbitzuetako izapideak egiteko dokumentazioa eta izapide horien kudeaketa nolakoak izan behar diren kontuan hartzea:
 - Hizkuntza errazean informatzea. Kudeaketa oso zaila bada, herritarrek ezingo dute egin.
 - Izapide burokratikoak zailak izaten dira eta formularioak konplexuak.
 - Administrazioak ezin du huts egin aurrez aurreko arreta ezabatzean, horrek oztopoak sortzen baititu.
 - Herritarrentzako izapide errepikakorrak saihestea.

III. eranskina. ARAU-EDUKIA

Eranskin honetan, dokumentua idatzi zen egunean indarrean zegoen irisgarritasun unibertsalari buruzko arau-esparrua jasotzen da.

Nazioarteko arau-esparrua

- ❖ [Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa](#) (NBE).
- ❖ [Berdintasunaren Batasuna](#): Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko 2021-2030 estrategia (EB).
- ❖ [Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko apirilaren 17ko 2019/882 \(EB\) Zuzentaraua](#), produktu eta zerbitzuen irisgarritasun-baldintzei buruzkoa.
- ❖ Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen [Gutuna](#).

Estatuko arau-esparrua: **orokorra**

- ❖ [6/2022 Legea, martxoaren 31koa](#), desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina -azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua- aldatzekoa, irisgarritasun kognitiboa eta hori eskatzeko eta aplikatzeko baldintzak ezartzen eta arautzen dituen.
- ❖ [8/2021 Legea, ekainaren 2koa](#), desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa erabiltzen laguntzeko legeria zibila eta prozesala aldatzen duena.
- ❖ [2/2020 Lege Organikoa, abenduaren 16koa](#), Zigor Kodea aldatzekoa, judizialki ezgaituta dauden desgaituen esterilizazio behartua edo baimendu gabea ezabatzeko.
- ❖ [2/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa](#), Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzekoa, desgaitasuna duten pertsona guztiei boto-eskubidea bermatzeko.
- ❖ [1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa](#), desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena.
- ❖ [26/2011 Legea, abuztuaren 1koa](#), desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren baitan araudia egokitzeko.
- ❖ [1276/2011 Errege Dekretua, irailaren 16koa](#), desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren baitan araudia egokitzeko.
- ❖ [27/2007 Legea, urriaren 23koa](#), Espainiako zeinu-mintzairak onartzen dituen eta gorren, entzumen-desgaitasuna dutenen eta gor-itsuen ahozko komunikaziorako laguntza-bitartekoak arautzen dituen.
- ❖ [1417/2006 Errege Dekretua, abenduaren 1koa](#), aukera-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta desgaitasunagatiko irisgarritasunaren arloko kexak eta erreklamazioak ebazteko arbitraje-sistema ezartzen duena.
- ❖ [39/2006 Legea, abenduaren 14koa](#), autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa.

Estatuko arau-esparrua: **hiri-ingurunea eta eraikuntza**

- ❖ [450/2022 Errege Dekretua, ekainaren 14koa](#), martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena.
- ❖ [TMA/851/2021 Agindua, uztailaren 23koa](#), irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarriko baldintzei buruzko dokumentu teknikoa garatzen duena espazio publiko urbanizatuetara iristeko eta horiek erabiltzeko.
- ❖ [732/2019 Errege Dekretua, abenduaren 20koa](#), martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena.
- ❖ [173/2010 Errege Dekretua, otsailaren 19koa](#), martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena, desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan.
- ❖ [505/2007 Errege Dekretua, apirilaren 20koa](#), desgaitasuna duten pertsonak espazio publiko urbanizatuetara eta eraikinetara sartzeko eta horiek erabiltzeko irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarriko baldintzak onartzen dituena.

Estatuko arau-esparrua: **garraioa**

- ❖ [537/2019 Errege Dekretua, irailaren 20koa](#), honako errege-dekretu hau aldatzen duena: 1544/2007 Errege Dekretua, azaroaren 23koa, desgaitasuna duten pertsonen garraiobideak eskuratzeko eta erabiltzeko irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarriko baldintzak arautzen dituena.
- ❖ [1544/2007 Errege Dekretua, azaroaren 23koa](#), desgaitasuna duten pertsonen garraiobideak eskuratzeko eta horiek erabiltzeko irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarriko baldintzak arautzen dituena.

Estatuko arau-esparrua: **komunikazioa eta teknologia berriak**

- ❖ [1112/2018 Errege Dekretua, irailaren 7koa](#), sektore publikoko gailu mugikorretarako webguneen eta aplikazioen irisgarritasunari buruzkoa.
- ❖ [27/2007 Legea, urriaren 23koa](#), Espainiako zeinu-mintzairak onartzen dituena eta gorren, entzumen-desgaitasuna dutenen eta gor-itsuen ahozko komunikaziorako laguntza-bitartekoak arautzen dituena.
- ❖ [1494/2007 Errege Dekretua, azaroaren 12koa](#), desgaitasuna duten pertsonen informazioaren gizartearekin eta gizarte-komunikabideekin lotutako teknologia, produktu eta zerbitzuak eskuratzeko oinarriko baldintzei buruzko Erregelamendua onartzen duena.

Autonomia-erkidegoko arau-esparrua: **Euskadi**

- ❖ [6/2019 Legea, maiatzaren 9koa](#), Euskal Kultura Ondarearena.
- ❖ [6/2016 Legea, maiatzaren 12koa](#), Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa.
- ❖ [10/2007 Legea, ekainaren 29koa](#), Ahalmen Urrituentzako Laguntza Txakurrei buruzkoa.
- ❖ [2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa](#), Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.

- ❖ [20/1997 Legea, abenduaren 4koa](#), Irisgarritasuna sustatzekoa.
- ❖ [80/2022 Dekretua, ekainaren 28koa](#), Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxienerako bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen dekretua.
- ❖ [42/2005 Dekretua, martxoaren 1ekoa](#), hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen Dekretua aldatzen duena.
- ❖ [126/2001 Dekretua, uztailaren 10ekoa](#), garraioan irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen dekretua.
- ❖ [68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa](#), hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen dekretua.

IV. eranskina. DOKUMENTU-ITURRIAK

Arau teknikoak - estandarrak

[UNE Espainiako Normalizazioa](#)

UNE-ISO 21902:2021. Turismoa eta lotutako zerbitzuak. Guztiontzako irisgarria den turismoa. Betekizunak eta gomendioak.

UNE 41510:2001. Irisgarritasuna hirigintzan.

UNE 41512:2001. Irisgarritasuna hondartzetan eta haien inguruan.

UNE 41531:2018 IN. Kultura-ondare higiezinako irisgarritasuna. Irizpide orokorrak eta metodologia.

UNE 153101:2018 EX irakurketa errazari buruzkoa. Dokumentuak egiteko jarraibideak eta gomendioak.

UNE 153102:2018 EX. Dokumentuak baliozkotzeko gida irakurketa errazean.

UNE 170001-1: 2007. Irisgarritasun unibertsala. 1. zatia: DALCO irizpideak ingurunerako irisgarritasuna errazteko.

UNE 170001-2: 2007. Irisgarritasun unibertsala. 2. zatia: Irisgarritasuna kudeatzeko sistema.

UNE 170002:2022. Eraikuntzako seinaleztapen-elementuetarako irisgarritasun-baldintzak.

Estrategiak, gidak, eskuliburuak eta bestelako dokumentazioa

[Gizarteratzeko IV. Euskal Plana 2017-2021](#) - Eusko Jaurlaritzaren - Euskadi.eus.

[Accessibilitas](#). Irisgarritasun unibertsala sustatzeko plataforma.

[Euskadiko 2030 Agenda](#). Euskadi.eus.

Arrufat Pérez de Zafra, M. A., Alcaín Martínez, E. (2018). [Sektore publikoko gailu mugikorretarako webguneen eta aplikazioen irisgarritasuna. 1112/2018 Errege Dekretuaren, irailaren 7koa, aplikazio praktikorako gida juridiko eta teknikoa](#). Argitaratzailea: CERMI. Inklusioa eta Aniztasuna bilduma.

Ekintzaile eta enpresaburu autonomoen elkarteak (datarik ez). [AMIA analisiak eta CAME erantzunak](#). Argitaratzailea: Biblioteca Práctica.

[Irisgarritasun Kognitiboaren Espainiako Zentroa](#) (CEACOG). Gizarte Eskubideen eta 2030 Agendaren Ministerioa.

Europar Batasuneko Eskualdeetako Lantaldea. (2009). [Eskualdeetako Komitearen Liburu Zuria, maila anitzeko gobernantzarari buruzkoa](#).

Irisgarritasuneko Zuzendaritza Nagusia. Obra eta Ekipamenduen Gobernu Saila, Madrilgo Udala. (2022). [Madrilgo hirirako Irisgarritasun Unibertsalaren Plan Estrategikoa](#).

Irsgarritasuneko Zuzendaritza Nagusia. Obra eta Ekipamenduen Gobernu Saila, Madrilgo Udala. (2022). [Madrilgo Udalaren espazio publiko urbanizatueta irsgarritasun-
eskuliburua.](#)

Irsgarritasuneko eta Zentroetako Zuzendaritza Nagusia. (2021). [Extremadurako
udalerrietan eta toki-erakunde txikietan irsgarritasun unibertsaleko plana idazteko gida
metodologikoa.](#) Extremadurako Junta.

Eusko Jaurlaritza (datarik ez). [Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikuntza Jasangariaren
Ibilbide Oria. Bultzatu 2025.](#) Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza. Obra Publiko,
Etxebizitza eta Garraio Saila.

Hernández Galán, Jesús (Zuzendaritza eta koordinazio teknikoa). (2019). [Udalerrietako irsgarritasunari buruzko eskuliburu teknikoa.](#) Argitaratzailea: ONCE Fundazioa.

Hernández-Galán, Jesús (Zuzendaritza); Borau Jordán, Jose Luis (koord. teknikoa);
Sánchez Martín, Carlos (koord. teknikoa). (2021). [Espainiako udalerrietako Irsgarritasun
Unibertsalaren Behatokia.](#) Argitaratzailea: ONCE Fundazioa.

Jareño, A. (2018). [Irakurketa errazeko testuak baliozkotzeko gida.](#) Argitaratzailea:
Plena Inclusión Extremadura.

Junca Ubierna, José Antonio. SOCYTEC, SL. "Colección de Informes y Listados de
Comprobación". Argitaratzailea: Gaztela-Mantxako Erkidegoen Junta.

Junca Ubierna, José Antonio. SOCYTEC, SL. "Buenas Prácticas en Accesibilidad
Universal. Primera Selección de Realizaciones. 2006". Argitaratzailea: Gaztela-Mantxako
Erkidegoen Junta.

Junca Ubierna, José Antonio et al. "Manual para un Entorno Accesible".
Argitaratzailea: Desgaitasunari buruzko Errege Patronatua.

Junca Ubierna, José Antonio. "50 Ideas Fuerza en Accesibilidad Universal".
Argitaratzailea: Sociedad y Técnica, SOCYTEC, SL

Junca Ubierna, José Antonio. "Diseño Universal. Factores Clave para la Accesibilidad
Integral". Argitaratzailea: Gaztela-Mantxako Erkidegoen Junta; COCEMFE Castilla-La
Mancha; SOCYTEC, SL.

Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa. Idazkaritza Nagusia, Argitalpen
Zentroa. [Espazio Publiko Urbanizatueta Irsgarritasun Gida v.1.0.](#) Uztailaren 23ko
TMA/851/2021 ministro-agindua aplikatzeko gomendioak. Horren bidez, irsgarritasunaren
eta diskriminaziorik ezaren oinarriko baldintzei buruzko dokumentu teknikoa garatzen da
espazio publiko urbanizatueta sartzeko eta horiek erabiltzeko.

Glez, D., G^a-Ochoa, F. (datarik ez). [Irsgarritasun Turistikoko Jardunbide Egokien
Dekalogo.](#) Turismoko Idazkaritza Nagusia (Turismo eta Merkataritzako Estatu Idazkaritza,
Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioa); MHI Turismo.

Freijeiro, G. et al. (datarik ez). [Irsgarritasun Turistikoko Jardunbide Egokien Dekalogo
II.](#) Turismoko Estatu Idazkaritza (Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioa); Accesturismo
International Consulting.

[Osasun Sailaren Marko Estrategikoa 2021-2024](#). Osasun Saila, Eusko Jaurlaritzak. Euskadi.eus.

[Euskadiko Garraio Jasangarriaren 2030 Gida Plana](#) - Garraioaren antolamendua eta plangintza - Euskadi.eus.

[Eskola Inklusiboa garatzeko Esparru Plana 2019-2022](#). Eusko Jaurlaritzak - Euskadi.eus.

Plena Inclusión Aragoi. (2021). [Irakurketa erraza, zer da eta nola egiten da?](#)

Web Accessibility Initiative. W3C (World Wide Web Consortium). Estrategiak, estandarrak eta materialak urritasunak dituzten jendearentzat irisgarriak diren Web orriak egiteko. [W3Cren irisgarritasun-estandarren laburpena](#).

Irisgarritasun unibertsalaren eta desgaitasunaren arloko sariak eta aintzatespenak

Europako Batzordea. [Access City Awards 2023](#).

Desgaitasunari buruzko Errege Patronatua, Gizarte Eskubideen eta 2030 Agendaren Ministerioa. [Letizia Erreginaren Desgaitasun Sari Nazionalak](#).

CERMI – Desgaitasuna duten Pertsonen Ordezkarrien Espainiako Batzordea. [CERMI.ES saria](#).

V. eranskina. ESTATISTIKA-ITURRIAK

Eranskin honek irisgarritasunari lotutako estatistika-iturri garrantzitsuenetako batzuk biltzen ditu; hala ere, gomendagarria da autonomia-erkidegoen, probintzien eta udalen mailan dauden antzeko iturriak txertatzea eta kontsultatzea:

Europar Batasuna

- [Diru-sarreraren eta Bizi Baldintzen Europako Estatistika.](#)
- [Osasunari buruzko Europako Inkesta.](#)
- [Biztanleria Aktiboaren Europako Inkestaren desgaitasun-modulua](#) (2011).
- [Osasunari eta Gizarteratzeari buruzko Europako Inkesta](#) (2012-2013).

Espainia

- [Desgaitasunari buruz EINek egindako inkestak.](#)
- [Desgaitasuna duten Pertsonen Estatuko datu-basea.](#)
- [Osasunari buruzko Europako Inkesta Espainian](#) (EESE).
- [Osasun Inkesta Nazionala](#) (ENSE).

Euskadi

- [Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda.](#) Eustat – Euskal Estatistika Erakundea.
- [Gizarte-premiei buruzko inkesta. 2014 – PGDI pobrezia-modulua.](#) Gizarte Politiketako eta Enplegu Saila, Eusko Jaurlaritza.
- [Euskoregite.](#) Eraikinen Ikuskaritza Teknikoari buruzko informazio eta kudeaketarako ataria. Datuak eta estatistikak.
- [Zahartze-indizea udalerrika.](#) Biztanleriaren egituraren adierazleak. EIN – Estatistikako Institutu Nazionala.
- Adinekoak. 65 urtetik gorako biztanleriaren bilakaera, EAeko lurralde historikoaren arabera. [Biztanleen udal estatistika.](#) Eustat – Euskal Estatistika Erakundea.

VI. eranskina. PIAUren OINARRIZKO AURKIBIDEAREN PROPOSAMENA

Dokumentu hau egituratu duen eskemari jarraituz, Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integrala egiteko oinarrizko aurkibide-eredua proposatzen da, eta deskribatutako fase bakoitzarekin duen erlazioa zehazten da.

Adierazitako estekak erabiliz, identifikatutako fase bakoitzaren edukia kontsultatu ahal izango da.

FASEAK >>>>>

FASE BAKOITZA PLANAREN EDUKIRA ERAMATEA

[PROPOSAMEN
ESTRATEGIKOA →](#)

[AURRETIKO
LANAK →](#)

[1. FASEA
ANALISIA ETA
DIAGNOSTIKOA →](#)

[2. FASEA
JARDUERA-
PLANA →](#)

[3. FASEA
KUDEAKETA-
PLANA →](#)

[JARRAIPENA ETA
EBALUAZIOA →](#)

-
1. Sarrera
 2. Oinarriak
 3. Jarduera-eremua
 - a. Erakundearen ezaugarriak
 - b. Aurrekariak
 - c. Arau-esparrua eta esparru politikoa
 4. Proposamen estrategikoa eta irismena

 5. Analisia
 - a. Metodologia
 - b. Emaidza nagusiak
 6. Diagnostikoa ardatz estrategikoen eta eremuen arabera

 7. Jardueren proposamena
 - a) Jarduteko neurriak
 - b) Lehentasunak ezartzeko irizpideak
 - c) Jarduketan balorazioa
 - d) Etapa-plana
 8. Inplikazioak

 9. Planaren jarraipena eta ebaluazioa
 - a) Aginte-taula
 - b) Barne-auditoretzak
 - c) Parte-hartzea
 - d) Emaidzen txostena
 - e) Plana berrikustea

 10. Eranskinak

VII. eranskina. DEFINIZIOAK ETA TERMINOLOGIA

Irisgarritasun fisikoa: irisgarritasun unibertsalaren alderdi horretan zentratu dira gehien orain arte hiri-inguruneetako eta eraikitako inguruneetako oztopo fisikoak ezabatzeko estrategiak. Hala ere, ikuspegi hori zabaldu egin behar da, eta beste ingurune batzuetako irisgarritasun fisikoa ere kontuan hartu behar da, hala nola prozesu, jarduera, ondasun, produktu, zerbitzu, objektu edo tresna, erreminta eta gailuei dagokiena. Halaber, aintzat hartu behar dira erabiltzaileen eskakizun fisikoak, hala nola desgaitasun iraunkorra duten edo aldi baterako lesioak dituzten pertsonenak, adinekoenak, haur-kotxea edo bagaje astunak daramatzatzenenak, etab.

Irisgarritasun sensoriala: ikusmeneko irisgarritasun sensoriala eta entzumeneko irisgarritasun sensoriala biltzen dituen terminoa honela defini daiteke: ingurune, prozesu, jarduera, ondasun, produktu, zerbitzu, objektu edo tresna, erreminta eta gailuen ezaugarria, pertsona guztiek hura eskuratu eta erabiltzeko aukera izan dezaten, bereziki pertsona horiek ikusmenaren eta entzumenaren zentzumenen bidez ingurunearekin harremanetan jartzeko zailtasun iraunkorra edo aldi baterakoa dutenean.

Irisgarritasun kognitiboa: [Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina aldatzen duen martxoaren 31ko 6/2022 Legean](#) jasotako definizioak honela dio: "erraz ulertzea eta komunikatzea ahalbidetzen duten inguruneen, prozesuen, jardueren, ondasunen, produktuen, zerbitzuen, objektuen edo tresnen, erreminten eta gailuen ezaugarria da, erabiltzaileen gaitasunak eta trebetasunak alde batera utzita".

Komunikazio handigarria eta alternatiboa: "Ahozko komunikazioan zailtasunak dituen pertsona batek edozein inguruneetan modu eraginkorrean hitz egiteko eta elkarreraginean jarduteko erabiltzen duen bitartekoa da. Horretarako, bere gaitasunetara egokitutako beharrezko euskarriak izango ditu, eta euskarri horien erabilera solaskideekin partekatuko du. Hala, eskubideak egikaritzeko aukera emango dio, baita gizartean modu aktiboan parte hartzeko ere, aukera-berdintasunean.

Komunikazio handigarritzat hartzen da pertsonak erabiltzen duen bitartekoak bere ahozko komunikazioa osatzen eta laguntzen duenean.

Komunikazio alternatibotzat hartzen da erabilitako bitartekoak ahozko komunikazioa ordezkatzen duenean.

Bi komunikazio-mota horiek aukera ematen diote pertsonari bere komunikazio-ahalmen guztiaz baliatzeko. Iturria: [CEAPAT](#).

Formatu alternatiboak: informatzeko eta komunikatzeko era edo modu desberdinak, ahalik eta pertsona gehienek edukia eskuratzea eta ulertzea errazten dutenak. Formatu alternatiboak dira zeinuzko edo testu-formatuak, ikus-entzunezkoak, audiodeskripziozkoak eta ukimenezkoak. Honako hauek formatu alternatiboen adibideak dira:

- o **Braille:** erliebe-puntuetan oinarritutako komunikazio-sistema, batez ere itsuek eta ukimenaren bidez ikusmen-urritasun larria dutenek erabiltzen dutena.

- **QR kodeak:** bi dimentsioko barra-kodeak, testu, bideo eta audio formatuetan erreproduzitu daitekeen informazioa biltegitzeko erabiltzen direnak, eta beraz, moldakortasun handikoak (adibidez, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzako audioak, entzuteko desgaitasuna duten pertsonentzako zeinu-hizkuntzako interpretazio-bideoak, etab.).
- **Makro karakterrak:** tamaina handiko karaktereak (letra, zenbakiak, sinboloak...), irakurtzeko erraztasunak emanez, batez ere ikusmen-urritasuna duten pertsonen.

Irakurketa erraza: "Metodo honek jarraibide eta gomendio batzuk jasotzen ditu, testuak idazteari, dokumentuak diseinatu eta maketatzeari eta dokumentuen ulergarritasuna baliozkotzeari buruzkoak, irakurtzeko ulermen-arazoak dituzten pertsonen informazioa helarazteko". Iturria: [UNE 153101:2018 EX irakurketa errazari buruzkoa](#)

Zeinu-hizkuntza: "ikusmen-, espazio-, keinu- eta eskuzko hizkuntzak edo hizkuntza-sistemak dira, eta beren osieran faktore historiko, kultural, linguistiko eta sozialek eragiten dute. Pertsona gorrek, entzumen-desgaitasuna dutenek eta gor-itsu zeinatuek hizkuntza gisa erabili ohi dute". Iturria: [27/2007 Legea, urriaren 23koa](#), Espainiako zeinu-hizkuntzak onartzen dituen eta gorren, entzumen-desgaitasuna dutenen eta gor-itsuen ahozko komunikaziorako laguntza-bitartekoak arautzen dituen.

Ikerketa sozialeko teknikak: metodologia parte-hartzailea ahalbidetzeko erabiltzen den bitartekoa edo tresna dira, eta gai baten tratamendua edo kontzeptu baten formulazioa errazten dute, talde bateko kideen artean. Metodologia jakin bat aukeratzea proiektuaren izaeraren, espero diren emaitzen, hartzailen ezaugarrien, testuinguru soziokulturalaren eta politikoaren, eskura dauden baliabideen eta abarren arabera izango da. (Divulgación Dinámica s.l. 2010)

Hona hemen adibide batzuk:

- **Elkarrizketa ireki erdi-egituratua:** ikerketa sozialeko elkarrizketa irekia komunikazio-prozesu bat da, eta horren bidez ikertzaileak pertsona bati buruzko informazioa biltzen du ("informatzailea"), normalean alderdi biografikoei eta esperientziarekin lotutakoei buruz (Alonso, L. E., 1998: 67-68). Teknika horren erreferente "naturalak" ohiko elkarrizketa soziala eta elkarrizketa profesionalak dira (terapeutikoak, langileak aukeratzekoak, etab.). Teknika hori garatzeko, gaikako gidoia prestatuko da, ikerketa-helburuekin bat datorrena. Aurrez aurreko, telefono bidezko eta online formatuetan gara daitezke.
- **Eztabaida-taldeak:** eztabaida-taldea, gizarte-ikerketako teknika gisa, homogeneotasun/heterogeneotasun irizpideen arabera hautatutako hainbat parte-hartzaile (ahal dela, 6-10 pertsona) biltzean datza, gai bati edo gehiagori buruz eztabaidatzeko. Ikertzaile batek gainbegiratzen, bideratzen edo gidatzen du eztabaida hori, eta grabatu egiten du. Elkarrizketa-egoera horrek beharrak, irudikapen sozialak eta igurikimenak bateratzea bilatzen du, bat-bateko elkarrizketa izan daitekeena "laborategi" moduko batean bihurtuz (Ibáñez, J., 2003; Orfí, A., 1986, Callejo, J., 2001).

- **Herritarren inkesta:** herritar guztiei irekita edo interes bereziko talde bati zuzenduta. Inkesta laburra, zehatza eta intuitiboa izango da, eta zuzendutako interes-taldera egokitutako hizkuntza erabiliko da. Online bidez egingo da, webgunearen bitartez. Inkesta webgunearen eta sare sozialen bidez zabalduko da, elkarteetan eta beste erakunde sozial batzuen laguntzarekin.

VIII. eranskina. DOKUMENTU HAU SORTZEKO PROZESUA

Dokumentu hau garatzeko, ISEKek, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua den aldetik, eskura dituen tresnetako bat erabili da, Ponentziak izenekoa, hain zuzen.

Ponentziak ISEKeko kideek irisgarritasunari buruzko gai interesgarriak beste eragile batzuen parte-hartzearekin landu ahal izateko formula dira.

Hala, [Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren \(ISEK\) lehen Ponentzia](#) egitea erabaki zen, PIAUen idazketari, jarraipenari eta informaziori dagokienez antzemandako premia zela eta.

Ponentzia hori lau saioak osatu dute, eta parte-hartzaileek, hala nola elkarteek, erakunde publikoek, elkargo profesionalak eta adituek, irisgarritasun unibertsaleko plan integralei eta horiek garatzean kontuan hartu beharreko elementuei buruzko hausnarketa egin ahal izan dute.

Saio horiek 2022ko azarotik 2023ko urtarrilera bitartean egin dira, eta, ondoren, parte-hartzaile guztiek beren ekarpenak eta hobekuntza-proposamenak aurkezteko epea ireki da.

Saioak: 2022ko azaroaren 3an eta 15ean, abenduaren 1ean eta 2023ko urtarrilaren 17an.



25. irudia *Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integralen Ponentziaren esparruan egindako saioak*

Erakunde parte-hartzaileak

Saio horietan honako erakunde hauetako ordezkariak izan dira:

- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
 - Etxebizitza Sailburuordetza
 - Garraio Sailburuordetza
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Arabako Foru Aldundia
- EUDEL
- ELKARTEAN
 - FEKOOR
 - ELKARTU
 - EGINAREN EGINEZ
- ONCE
- EUSKAL GORRAK
- FEDERPEN
- UCE – EUSKADIKO KONTSUMITZAILEEN BATASUNA
- FEVAS Plena Inclusión
- EHAE0 – EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALA
- COAAT – APAREJADORE ETA ARKITEKTO TEKNIKOEN ELKARGO OFIZIALA
- INGENIARIEN ELKARGOA
- Etxebarriko Udala
- Barakaldoko Udala
- Laguardiako Udala (Laguardia-Arabako Errioxako Kuadrilako aholkularia)
- Irisgarritasun Unibertsalari buruzko CAUE Ikastaroaren Zuzendaritza
- PROJEKTA URBES (PROJEKTA CONTRACT)
- I-INGENIA
- GEOTECH

